

PIL-PILEAN

Herri-mugimenduen formakuntza politikorako esperientzia bat Euskal Herrian

Ikastaroaren Sistematizazioa (2015-2018)



**Pil-Pilean. Herri-mugimenduen formakuntza
politikorako esperientzia bat Euskal Herrian
Ikastaroaren Sistematizazioa (2015-2018)**

Proiektuaren koordinazioa eta idazketa:



Argitarapen hau Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker burutu da.



Argitarapen hau *Bor Bor (K) Herri Jakintzen Laborategia* proiektuaren baitan egin da. Proiektu honetan parte hartu dute:



Euskal Herrian, 2020ko azaroan
www.joxemizumalabe.eus

Lege gordailua: D 985-2020




Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago.

Lizentzia honek lan hau zabaldu eta elkarbanatzea ahalbidetzen dizu, betiere iturria aipatu eta egileen aitortpena eginda eta lizentzia mota bera erabilita.

Aurkibidea

1. SARRERA GISA.....	7
2. PIL-PILEAN IKASTAROAREN NONDIK-NORAKOAK	13
2.1 Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiaren sorrera eta helburuak	13
2.2 Ikastaroa ezaugarritzea.....	19
2.3 Ikastaroko kideak eta profilak	21
3. PIL-PILEAN IKASTAROAREN SISTEMATIZAZIOA.....	25
3.1 Gaitegia	25
3.2 Ikastaroaren antolaketa: lantaldeak	38
3.3 Ikastaroaren antolaketa: Bilgune Politiko Pedagogikoa (BPP).....	53
3.4 Formakuntza-momentu presentzialak	61
3.5 Formakuntza-momentu ez-presentzialak	76
4. ONDORIO GISA	85
BIBLIOGRAFIA	97

Pil-piloen
GAINA (K) HERRA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA

Biltzaerak
Erraztasun
mat...

ondoa
en

1. SARRERA GISA

Joxemi Zumalabe Fundazioa herri-mugimenduetatik, herri-mugimenduekin eta herri-mugimenduentzat lan egiten duen eragilea da. Sortu zenetik izan da bere helburu nagusia Euskal Herrian bestelako jendarteredu baten alde lanean ari diren herri-mugimenduak laguntzea. Eguneroko langai ditugu formakuntza, gogoeta eta dinamizazioa; eta, honako honetan, formakuntza-ildoan aurrera eraman genuen proiektu bati buruz ariko gatzazkizue, Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiaren baitan antolatutako Pil-Pilean ikastaroaz.

Jakintza kolektiboki sortzea ardatz, Euskal Herriko herri-mugimenduek elkar ezagutzeko, esperientziak trukatzeko eta saretzeko espazio izan zedin sortu zen 2015. urtean *Pil-Pilean ikastaroa* (hasieran Bor-Bor(K) deitu genuena). Formakuntza politiko integrala sustatu nahi genuen: historikoa, teoriko-ideologikoa, metodologikoa, gorputzekoa, antolaketakoa...; herri-sektoreek pairatzen dituzten zapalkuntza guztiak eta aurrera darमतatzaten borroka eta erresistentzia estrategia denak aitortuz. Formakuntza politikorako esperimentu harekin kultura politiko askatzaileagoak pentsatu nahi genituen, gure kultura politikoak *izateko* eta *ekiteko* dituen moduak berritzeko ahaleginean sakondu.

Amets, ilusio eta gogo horietatik abiatu ginen, eta guk irudikatzen genuen bidean inspirazio iturri izan zitezkeen esperientziak eta pertsonak ezagutzen joan ginen, Euskal Herrikoak eta Hego Ameriketakoak; lokalak eta internazionalak. Esperientzia horietatik behar genituen osagaiak gure egin, eta zentzu askotan berritzailea izan den formazio politikorako ikastaroari ekitea lortu genuen. Ekin eta egin, ikasturte bateko iraupeneko ikastaroaren 3 edizio egin baikenituen.

Hain zuzen ere, dokumentu honetan hiru edizioen sistematizazioa jasotzen saiatu gara. Baina, zer da sistematizazioa?

«Sistematizazioa esperientzia baten edo batzuen interpretazio kritikoa da. Esperientzia horiek ordenatu eta berreraiki ondoren, haietan bizitako prozesuaren logika eta zentzua deskubritzen edo esplizitatzen duena: zer faktorek esku hartu zuten, nola erlazionatu ziren elkarrekin, eta zergatik egin zuten modu horretan.» (Oscar Jara Holliday, 2011)

Sistematizazioa lagungarri zaigu gure esperientzia sakonago ulertzeko eta zuzenean jasotzeko bertan sortutako ezagutzak. Aukera zabaltzen digu ondo eginak indartzeko, eta, akatsak edo oztopoak gainditzeko moduak berrikusiz eta proposatuz, hurrengo esperientzietan hobetzeko. Era berean, sistematizazioa dugu guk bizitakoa antzeko beste esperientzia batzuekin trukatzeko eta partekatzeko aukera.

Horrela, bada, bi helburu nagusi ditu Pil-Pilean ikastaroaren sistematizazio honek. Baga, hiru edizioen balorazio orokorra egitea; biga, ikasitakoak partekatzea beste formakuntza politikorako esperientzia batzuei begira. Eta, honako hauek ditu helburu zehatzak:

1. Hiru ediziotako esperientzien laburbilketa egitea, zer egin dugun eta nola egin dugun kontatuz.
2. Ikastaroaren alderdi edo zutabe nagusien indarguneak eta ahulguneak identifikatzea eta esperientzia hartan ikasitakoak jasotzea.
3. Sortutako zalantzak, galderak edota erronkak agertzea: aurrera begira baliagarriak izan daitezten.
4. Herri-mugimenduen funtzionamendua hobetzeko eta zapalkuntzak gainditze bidean ikastaroak egin dituen ekarpenak identifikatzea eta balioa ematea.

Lan hau egiteko lehen-mailako informazio-iturrietan oinarritu gara, zehazki, Pil-Pilean ikastaroko honako barne dokumentu hauetan:

- Edizio bakoitzaren bukaeran *Bilgune Politiko Pedagogikoak*¹ (hemendik aurrera BPP) egindako balorazio-bileren aktak (argitaratu gabeko hiru dokumentu). Testuan zehar honela izendatuko dira: (X. edizioa, BPP).
- Pil-Pilean ikastaroko bigarren eta hirugarren edizioetako aurrez aurreko azken saioetan ikastaroko partaideekin *world-café* formatuan egindako balorazioen aktak (argitaratu gabeko bi dokumentu). Testuan zehar honela izendatuko dira: (X. edizioa, partaideak).
- 2015/16 ikastaroaren sistematizazioa: *talde-lana eta aliantzak herri-mugimenduetan* (Pil-Pilean ikastaroaren lehenengo edizioko sistematizazio-txostena, argitaratua). Testuan zehar honela izendatuko da: (1. edizioa, sistematizazioa).
- Ikastaroaren sortze-prozesuari dagozkion aktak eta txostenak ere berrikusi ditugu. Horien gaineko analisia *Formakuntza politikorako esperientziak herri-mugimenduetan* (2015) liburuan dago argitaratua.

Dokumentu horiek guztiak ordenatuz, aztertuz eta uztartuz egin dugu ondorengo lerrootan jasotzen den analisia.

Eskuartean duzun liburuxka hau hiru ataletan banatua dago. Hasteko, bigarren atalean, herri-mugimenduen formakuntza politiko berritzaile baten ametsetik Pil-Pilean ikastarora nola iritsi ginen aurkeztu dugu; baita ikastaroan nortzuk hartu genuen parte ere. Hirugarren atalean, esperientzia horren zutabe edo gako nagusiak azaldu ditugu; hala nola, ikastaroaren antolaketa eta funtzionamendu orokorra, momentu presentzialetako eta ez-presentzialetako lanketak eta ikastaroaren gaitegia. Ildo bakoitzaren testuingurua (zer, nola eta zergatik hartu genituen hainbat erabaki politiko-pedagogiko), balorazio orokorra (indarguneak eta ahulguneak) eta erronkak nahiz ikasitakoak azalduz. Azkenik, laugarren atalean, ikastaroari

1 *Bilgune Politiko Pedagogikoa* Joxemi Zumalabe Fundazioko kidez osatutako taldea zen. Helburu nagusia ikastaroaren koordinazio-lanak egitea zuen (ikus 3.3 atala).


jarri genizkion helburuen araberako balorazioa egin dugu eta hainbat ondorio orokor plazaratu.

Liburuxka honekin batera Pil-Pilean ikastaroan parte hartu zuten hainbat kidek ikastaroa nola bizi izan zuten, eta, urte batzuk pasa ostean, beraiengan utzitako arrastoa edo izandako eragina kontatzen duen dokumentala ere argitaratu dugu. Ikastaroa partaideen hitzetatik eta bizipenetatik ezagutzeko modua ere eskaini nahi izan baitugu.

Oso eskertuta gaude nekazal mugimenduei, mugimendu indigenei, feministei, herri-heziketa lantaldeei eta Pil-Pilean diseinatzeko bidean inspiratu gintuzuen guztioi. Eta baita ibilbide honetan izan ditugun bidelagun paregabe guztiei ere. Euskal Herriko formakuntza-esperientzietan dabiltzan pertsona eta kolektiboei, Joxemi Zumalabe Fundazioko kideei, eta, nola ez, ikastaroaren hiru edizioetan boluntario-lanak egin zituzten eta partaide izan ziren kide guztiei. Zuei denoi, gure eskerrik beroenak!



Pil-piloen
GAINA (K) HERRA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA

Biltzaerako
Erraztasun
materialak

ondoa
en

2. PIL-PILEAN IKASTAROAREN NONDIK-NORAKOAK

2.1 Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiaren sorrera eta helburuak²

Joxemi Zumalabe Fundazioan bagenuen Euskal Herriko mugimenduetatik eta mugimenduentzako formazio politiko baterako espazio bat birsortzeko ametsa, etengabe berrituko litzatekeen formazio politikorako proiektu berritzaile, ireki eta kolektibo bat izatekoa. 2013an hasi ginen bide horretan lehen urratsak egiten.

2014n gogoeta kolektiboa oinarri zuen prozesu parte-hartzaile bat abiatu genuen, eragile, kolektibo eta herri-mugimenduetako hainbat kiderekin. Herri-mugimenduetan (Euskal Herrian zein nazioartean) garatzen ari ziren formakuntza-esperientziak ezagutu, formakuntza politikoaren analisi bat osatu eta aurrera begirako erronka batzuk definitu nahi genituen. Zazpi eragilerekin (Bizkaiko Urtxintxa Eskola, UEU, EHNE Bizkaia, Ipar Hegoa Fundazioa, Manu Robles Arangiz Fundazioa, Emagin eta Ipes elkarteak) formakuntzari buruzko hainbat lan-saio egin genituen eta Euskal Herriko formakuntza politikoari buruzko diagnostiko bat egin genuen (1. taulan dago laburpena).

Gure hasierako intuizioak indartu zituen diagnostikoak eta proiektuaren helburu eta oinarri politiko-pedagogikoak aberastu zituen. Prozesuarekin aurrera jarraitu genuen, bai barrura begira zein herri-eragileekin partekatzeko jarraituz lan-saioak, bilerak, kontraste-saioak, jardunaldiak... (Ikus 1. irudia). Horrela, urte eta erdiko ibilbidearen ostean Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategia jaio zen.


Sorrera-prozesuan argi gelditu zen Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiak ezagutza-aniztasuna aitortzea eta aniztasun horretatik jardutea izan behar zituela oinarri. Izan ere, herri-mugimenduok gure jarduna garatzeko askotariko ezagutzak behar ditugu: kontzeptualak zein praktikoak, zer eta nola

2 *Formazio politikorako esperientziak herri-mugimenduetan* (Dañobeitia eta Roco, 2016) liburuan dago sistematizatua sortze-esperientzia hau, sakondu nahi duenarentzat.

borrokatu, eta baita gure kolektiboetan borroka horiek guztiak sostengatzeko gai izango den barne-bizitza osasuntsu mantentzekoak ere. Ezagutza horien guztien topagune izateko asmoz, honako helburu hauek zehaztu genizkion:

1. Herri-mugimenduak saretzeko, elkar ezagutzeko eta esperientzia-trukea bultzatzeko espazioa izatea. Mugimenduen eragiteko ahalmena zein jakintzak sortzeko gaitasuna hobetzea ipar izanik, herri-jakintza teoriko eta praktikoak iturri izango zituen formakuntza-eredu askatzaile baten bidean urratsak eginez.
2. Formakuntza politikoa berrezaugarritzea, jakintzaren sorkuntza kolektiboan oinarrituz eta horretatik jardunez. Horretarako, jakintza hainbat ikuspegitatik sortzeko bitartekoak jarritz, esperientziei eta praktikei lekua eginez, eta, formakuntza politikoa integratuz, ez soilik transmisio ideologiko-historikoa.

1 irudia Bor-Bor(k) errora-errezatzen faseak (2014-2015)



zituen Pil-Pilean ikastaroaren hiru edizio egin ziren; 2015/16 ikasturtean lehen esperientzia izan zen, 2016/17 ikasturtean, bigarrena eta 2017/18 ikasturtean hirugarren, eta, oraingoz behintzat, azkena.

Dena den, sistematizazio honetan ikastaro horri buruz arituko bagara ere, gerora, beste hainbat proposamen ere garatu dira Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategitik.

- *Biltokia* herri-mugimenduetatik eta herri-mugimenduentzat sortutako ezagutzak, dinamikak zein tresnak gordetzeko eta partekatzeko espazio birtuala (<https://biltokia.joxemizumalabe.eus/eu/>).
- *Murtxikatuz* prozesua, non, formakuntza kritikoa eta askatzailea lantzen ari diren esperientziak ezagutu ditugun, Euskal Herrian dauden formakuntza politikoaren mapa osatu dugun eta eragileak elkarrekin gogoeta eginez formakuntza politikoa berrezaugarritzeko ahaleginetan gabiltzan.



- *Gatzozpindu* herri-mugimenduetako kolektiboei zuzendutako dinamizazio politikorako ikastaroa.

Eta, lapikoak bor-borka jarraitu du urte hauetan guztietan ere, eta formakuntza eredu askatzaileagoen bidean hausnartzen jarraitu dugu. Ikastaroa garatu bitartean gogoetak elikatzen jarraitzeko beste hainbat jardunaldi eta ekimen antolatu ditugu: *Akademia eta herri-jakintzak. Jakintzen aniztasunaz eta etika askatzailean oinarritutako ikerketaz gogoetatzen* (Sarrrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, 2017ko apirila) eta *Korapiloak askatze bidean mintegiak* (Karmela, Bilbo, 2018ko ekaina), besteak beste.

1. taula. Formakuntza politikoa Euskal Herrian: hasierako diagnostikoa

METODOLOGIA ETA EPISTEMOLOGIA

- Egia absolutuetan formatu gara. Eztabaida gutxi ditugu, gatazkek eta kontraesanek beldurra ematen digute.
 - Galdetzeko eta ezagutza-gabezia adierazteko erresistentziak ditugu. Nork dakien eta nork ez hierarkizatu egiten dugu. Formakuntza bertikal eta ortodoxoa nagusitu zaigu.
 - Taldeko hausnarketei eta esperientzia praktikoei emandako garrantzia txikia da; oro har, ez dugu sistematizatzen sortutako ezagutza: ordenatu, aztertu, ondorioak atera... horren beharra dago.
 - Formakuntza planifikatzean ez diogu behar adinako garrantziarik ematen. Nork erabakitzen du zertan trebatu? Nola, zertarako eta noiz trebatu? Nondik hartzen dira erabaki horiek?
 - Talde-funtzionamenduei buruzko formakuntza gutxi dugu. Kanpora gehiago begiratzen da barrura baino.
 - Metodologiari ez zaio garrantziarik ematen.
 - Formakuntza oso intelektuala da. Oro har, ongi pasatzea eta asebeteta sentitzea ahazten zaigu.
 - Mugimenduei eta beren praktikei balioa emateko beharra dugu.
 - Euskaraz sortzeko eta bertatik pentsamendua sortzeko beharra dugu.
-

HERRI-MUGIMENDUEN ARTEKO SAREAK

- Sareak falta dira; bakoitza berean trebatzen da, endogamia elikatuz, eta ez da egiten azterketa orokorrik, osokorrik.
- Delegazionismoa elikatzen duten kultura, funtzionatzeko modu eta egiturak ditugu.
- Toki eta denbora gutxi dago formakuntza kritikorako, ez zaio lehen-tasunik ematen.
- Militantzia eta formakuntza-ereduek denbora antolatzeko moduetan eragina dute.
- Ez zaio formakuntzari lehen-tasunik ematen, praktikan ez bederen (berriro denborak...). Teoria eta praktikaren arteko oreka falta da. Penduluak bezala gabiltza, batzuetan pasa egiten gara eta beste batzuetan ez gara iristen.
- Herri-mugimenduen eta gizartearen arteko lotura-elkarrizketa falta. Gure terminologia oso geurea da eta ez dugu igortzen. Batzuetan eguneroko opresioetatik urruntzen gara.

GAIAK

- Hierarkizatu egiten dira, batzuek prestigio handiagoa dute.
- Opresio-dinamikak sakonki ulertzea ez dugu behar adina lantzen, horien eguneroko mekanismoak ulertzea, alegia.

PROFESIONALIZAZIOA

- Lehen, formakuntza autodidakta eta amateurra zen; orain, eremu batzuetan instituzionalizatu eta formalizatu egin da. Oreka egon behar du.
- Akademiarekiko konexioa eta deskonexioa; gune batzuk profesionalizatu egin dira, baina akademia mugimenduetatik urrun kokatzen da.

BALIABIDEAK

- Dirua oztopo da: ez dago baliabide ekonomikorik.
 - Informazio asko dago, baina iragazteko gidarik gabe.
-

PARTAIDEAK

- Garrantzitsua da norengana zuzentzen garen: antolakundeak, militanteak, pertsonak...
 - Prekarietate ekonomikoa eta bizitza prekarioa formakuntzarako oztopoak dira.
 - Neskato eta nerabeentzako behar adinako formakuntzarik ez da egon.
 - Formakuntzak konpromisoa eta diziplina esan nahi du, esfortzua. Kontraesanak sortzen zaizkigu.
 - Ez dago irekiera ideologikorik; ideiak aurrez aurre jarri behar dira, gaitasun kritikoa garatu...
-

Iturria: Dañobeitia eta Roco, 2016 (30-31) (moldatua)

2.2 Ikastaroa ezaugarritzea

Arestian aipatu bezala, formakuntza politikoari buruz urte eta erdiz aurrera eramandako prozesu kolektibo baten emaitza izan zen ikastaroa. Bidean joan ginen definituz ikastaroaren irizpide politiko-pedagogikoak, hiru edizioetan zehar gauzatu genituenak:

1. Herri-mugimenduetako kide guztiei zuzendutako ikastaroa izatea eta ez bakarrik formakuntzan aritzen diren *aritu* eta *adituei* (liberatuak, intelektualak, formakuntza arloko arduradunak, interes berezia dutenak...). Ildo beretik, ez zen *formatzaileak formatzeko* ikastaroa. Herri-mugimenduei (bere aniztasunean) zabaldu arren parte-hartzeko gonbita —kideek parte-hartzeko baliabideak jar zitzaten animatuz— ikastaroko partaideak ez ziren eragilearen ordezkari.
2. Ikastaroaren ardatza herri-hezkuntza izatea. Herri-mugimenduak ziren prozesuaren protagonistak; parte-hartzaile guztiak maila berean jarritz, guztiongandik eta guztion artean sortuz ezagutza, gaitasunak garatuz, eta, prozesu emantzipatzaile horren bidez, esparru politikoan esku-hartzeko eta eragiteko indartuz.

3. Gaitegiko edukiak herri-jakintzetatik eta Euskal Herriko herri-mugimenduen, pertsonen zein taldeen eguneroko praktiketatik abiatzea, eta, horietara itzultzea oinarri izatea; hau da, abiapuntu eta helmuga herri-mugimenduak izatea. Gainera, edukien lanketari eta sozializazioari begira, proiektuaren sistematizazio kolektiboa egitea zen erronka.
4. Aniztasuna oinarri hartuta, euskara ardatz ideologikoa izatea, baina ez mugatzailea. Ikastaroa gauzatzeko hizkuntza izanik, ikastaroan izena emateko euskara ulertzeko gai izatea beharrezkoa zen.
5. Elkarbizitza eta ardurak txandakatzea edo errotazio-sistema zuen eredutzat ikastaroak. Ezagutza-subjektua taldea izanik, eta, formakuntza politikoa modu integralean ulertuz, partaideek lau zeregin nagusi burutuko zituzten ikastaroa aurrera eramateko, lantaldetan banatuta eta txandakatur: 1) gogoeta, 2) azpiegituren kudeaketa, 3) arlo ludikoa eta momentu informalak eta 4) sistematizazio ardatzaren lanketa. (Ikus lantaldeen zeregin zehatzak 6. taulan)
6. Euskal Herri mailakoa (nazionala) eta *ibiltaria* zen ikastaroa, aurrez aurreko saioak herrialde ezberdinetan izanik; eta, ahal zen guztietan, aurrez aurreko saioak herri-mugimenduen espazioetan izatea lehentziz. Partaide batzuentzat *muga* zeharkatzeko debekua zela-eta, horiek guztiak Hego Euskal Herrian izan ziren.
7. Ikasturte bateko iraupena zuen ikastaroak, urritik maiatzera bitartean; momentu presentzialak eta ez-presentzialak izanik. Momentu presentzialei dagokionez, edizio bakoitzean 5 asteburutan bildu ginen (atariko asteburua, gaitegia garatzeko hiru asteburu eta itxiera asteburua), ostiral arratsaldetik igande arratsaldera bitartean. Momentu ez-presentzialak asteburu batetik bestera egiten ziren formakuntza-lanak ziren (lantaldeen lanak eta bilerak, nork bere lana online plataforma bat erabiliz...).
8. Ikastaroaren jarraipena eta koordinazioa egiteko Bilgune Politiko Pedagogikoa (BPP) osatu genuen. Joxemi Zumalabe Fundazioko kidez osa-

tutako taldea zen, erregulariki biltzen zena eta gainerako lantaldeekin etengabe zegoena harremanetan; lantalde guztietan zeuden BPPko kide bat edo bi. Bestalde, *talde* edo *bilgune zabala* zegoen, gogoeta estrategiakoak egiteko biltzen zen taldea, urtean behin edo bitan.

2.3 Ikastaroko kideak eta profilak

Pil-Pilean izendatu genuen ikastaroa, eta, 3 edizio egin genituen, 2015-2018 urteen artean. Euskal Herriko herri-mugimenduetako kideak izan ziren partaideak, edizio bakoitzean orotara 40 bat pertsonak hartu genuen parte: herri-mugimenduetako 30 partaide inguru, koordinazio taldeko (BPP) beste 10 bat lagun eta sukaldari taldea (4-5 boluntario).

Oro har, hiru edizioetan zehar taldea heterogeneoa izan zen. Heterogeneotasuna, dena den, homogeneotasun handi baten barruan; saltsa askotan ibilitakoak eta kolektibo eta borroka ezberdinetan arituek parte hartu zuten ikastaroetan (jai herrikoetan, sindikalgintzan, kultur eragileetan, feminismoan...).

Bestalde, sexua, arraza, etnia, jatorria edo klase sozialari erreparatuz gero, taldeak homogeneoak izan zirela *problematizatu* genuen. Euskaldunak (ikastaroan izena emateko euskara ulertzea baldintzetako bat zen), guztiak zuriak, eta, gehientsuenak, erdi-edo goi-mailako ikasketak zituztenak. Gehiengoa gipuzkoarra eta bizkaitarra zen; hala, edizio guztietan osatu ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako lantaldeak, baina hiru edizioetan Nafarroa Garaiko bi lantalde eta Arabako lantalde bakarra egon zen; Lapurdiko kide bakarrak hartu zuen parte eta Nafarroa Behereko edota Zuberoako kiderik ez zen izan.

Adinari dagokionez, batezbestekoa 28 urtekoa izan zen, nahiz eta adin-tartea 18tik 59rako izan; gehientsuenek 26-30 urte zituzten ikastaroa egitean. Bestalde, orotara 70 emakumek eta 41 gizonek parte hartu zuten. Partaideen bizilekuari dagokionez, 69 kide herrietan eta beste 42 hiriburu-etan bizi ziren.

51 partaidek talde lokaletan edo herriko eragileetan militatzen zuten, 35ek nazio-mailako eragileetan eta 18 kide *polimilitantzian* zebiltzan, talde lokale-tan eta nazio-mailako taldeetan ari ziren aldi berean lanean. Horrela, 91 talde lokalek eta nazio-mailako 27 eragilek izan zuten *presentzia* ikastaroan.

Azpitarratzekoa da, gainera, hirugarren edizioko partaide ia guztiak emakumezkoak izan zirela, mugimendu feministako kideak horietako asko.

Honako hauek izan ziren parte hartu zutenen militantzia-esparru ziren mugimenduak; taldeen borroka, aldarrikapen nagusi edo sektoreka.

2. taula. Ikastaroko partaideen profila, mugimendu edo eragileen arabera (2015-2018)

Feminismoak: 34	Eskubide sozialak: 6
Hezkuntza ez-formala/aisialdia: 21	Euskalgintza: 5
Kulturgintza: 22	Internazionalismoa: 4
Okupazioa: 14	LGTBI+: 4
Gazte mugimendua: 11	Ikasle mugimendua: 4
Alderdi politikoak: 9	Sindikalgintza: 4
Komunikazioa: 8	Hacktibismoa: 1
Ekologismoa: 7	Memoria historikoa: 1
Presoen borroka: 7	

Iturria: Joxemi Zumalabe Fundazioa



1. edizioko taldea




2. edizioko taldea



3. edizioko taldea

Pil-piloen
GAINA ERREKETA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA

Biltzaerak
Erraztasun
materiaz

ondoa
en

3. PIL-PILEAN IKASTAROAREN SISTEMATIZAZIOA

3.1 Gaitegia

Ikastaroko gaitegiak eduki edo gai-zerrenda zehatza jasotzen zuen, bi bloke nagusitan banatua: alde batetik, herri-mugimenduen antolaketaren eta funtzionamenduaren inguruko blokea; eta, bestetik, zapalkuntzei nahiz alternatiba askatzaileei buruzkoa. Era berean, bloke nagusi bakoitza hiru ataletan antolatu genuen, eta, atal bakoitzak, helburu eta gai jakin batzuk jasotzen zituen. Urterik urtera moldaketa txikiak egin arren, hiru edizioetako gaitegiaren osaera eta gai-zerrenda berdintsua izan zen.

Gaitegia bi bloke nagusitan banatuta egoteak aurrez aurreko saioetan blokeak tartekatu ahal izateko aukera eskaintzen zigun. Horrela, asteburuetako programa zehatzetan edo ibilbide metodologikoetan bloke bakoitzeko atal bana garatzen genuen.

3. taula. Gaitegiko atalen antolaketa, asteburuka

ASTE BURUAK/ GAI AK	ANTOLAKETA, FUNTZIONA- MENDUA ETA ALIANTZAK	ZAPALKUNTZAK ETA ALTER- NATIBA ASKATZAI LEAK
ATARIKO ASTE BURUA	Ikastaroaren aurkezpena (edukiak eta funtzionamendua), herri-jakintzen eta jakintza askatzaileen eremuan murgiltzea, lantaldeak sortzea....	
2. ASTE BURUA	Pertsona, taldea eta proiektu politikoa	Begirada kritikoa zorroz-tuz
3. ASTE BURUA	Harremanak, zaintza eta parte-hartzea	Zapalkuntzen jatorria
4. ASTE BURUA	Aliantzak eta elkarlan politikoa	Zapalkuntzak gain-ditze-ko estrategia eta praktikak
ITXIERA ASTE BURUA	Ikastaroaren sistematizazioa eta agurra	

Gaitegiaren antolaketa hori lagungarria izan zen lantalde bakoitza, erro-tazio-sistemaren bidez, eduki mota guztien dinamizazioan trebatzeko. Izan ere, Ikastaroaren antolaketaren atalean sakonago azalduko dugun moduan, *gogoeta zereginak* zituen lantaldeari zegokion asteburu bakoitzeko gaiak zehaztea eta ibilbide metodologikoa prestatzea.

Ikastaroko talde handia lau lantalde iraunkorretan banatzen zela kontuan izanik, hiru lantaldek ikastaroko hiru asteburutan bloke bakoitzeko atal bana garatzeko ardura zuten, eta, laugarrenak, ikastaroaren itxiera asteburu prestatzekoa. Atariko lehen asteburu, berriz, BPPko kideek prestatzen eta dinamizatzen zuten.

Azpimarratzekoa da lehen edizioaren aurretik definitu genuela gaitegia, modu kolektiboan eta parte-hartzailean. Honela, Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiaren sorrera-prozesuaren bigarren fasean, gaiak identifikatzen hasi eta lehentasunezkoak izan zitezkeen gaiak zehazteko asmoz hainbat herri-eragilerekin bilkura bana egin genuen Bilbon, Donostian eta Iruñean, 2014ko azaroan. Jasotako gaiak, arazoak eta erronkak sei multzotan banatu zituen: 1) herri-mugimenduaren barne antolaketa, 2) herri-borroka ezberdinen memoria-transmisioa, 3) zapalkuntzen gaur egungo mekanismoak eta alternatiba askatzaileak, 4) begirada kritikoa lantzeko tresnak, 5) komunikazioa eta 6) harremanak eta elkarlan politikoa: mugimenduen arteko sareak, harremanak gainerako eragile politiko eta erakunde publikoekin.

Hori eta gero, laugarren bilera bat deitu genuen gai multzo bakoitzaren lanketa zehatza adosteko, Gasteizen, 2014ko abenduan. Baina, deialdi hark izandako arrakasta eskasa tarteko, gaitegia garatzeko ardura talde-sustatzaileak hartu zuen bere gain.

Gaitegia osatzeko bidean, talde-sustatzaileak batetik unibertsitateko programak ez erreproduzitzeko herri-jakintzen ereduak bilatu eta balioetsi

zitzen³, eta, bestetik, gaiak aukeratzeko irizpideak zehazteari ekin zion. Honako irizpide hauek zehaztu ziren gaitegia osatuko zuten gaiak aukeratzeko:

- Aniztasuna: gaiak anitzak izatea eta askotariko ikuspuntuetatik jorratzeko aukera ematea, interseksionalitatearen lanketa ahalbidetu zezaten, besteak beste.
- Osotasuna/integraltasuna: dimentsio metodologikoa, historikoa, ideologikoa edota emozionala lantzea.
- Interdependentzia: emantzipazioaren askotariko dimentsioak (denborak, harremanak, espazioak...) harremanetan jartzea errazten zuten gaiak lantzea; interdependentzia anizkoitzak lantzea.
- Gaurkotasuna: herri-mugimenduetan eta jendartean pil-pilean zeuden edo egon zitezkeen gaiak jorratzea.
- Praktikotasuna: praktikan erabilgarriak ziren gaiak lantzea; teorizazioaren beharra begi bistatik galdu gabe, teorizazioan soilik gera ez zitezten.
- Estrategikotasuna: epe ertain eta luzean herri-mugimenduek euren gaitasuna biderkatzeko lagungarri izatea.
- Osagarritasuna: beste eragileek eta mugimenduek egiten zutenaren osagarri izatea; hau da, momentu hartan zeuden formakuntza ekimenak eta gaiak ez ordezkatzeta.

Azkenik, *Lapikoan sutan da* jardunaldietan (Donostian, 2015eko otsailean) kontrastatu ziren gaiak eta irizpideak beste hainbat militanterekin. Ikastaro bakar batean gai guztiak ezin izango zirela jorratu ondorioztatuta, gai batzuk

3 Besteak beste Guatemalako eskola feministen programa eta Brasilgo *Movimento Dos Trabalhadores Rurais Sem Terra* (MST) Lurrik gabeko Mugimenduaren *Escola Nacional Florestan Fernandes* eskolako gida eskuratu eta baliotsi genituen.

gaitegitik kanpo uztea erabaki zen, eta, horrela, adostutako gai guztiak bi bloke nagusien arabera multzokatu genituen.

4. taula. Ikastaroaren edukiak

1. BLOKEA: ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDUA ETA ALIANTZAK

LEHEN ATALA: PERTSONA, TALDEA ETA PROIEKTU POLITIKOA

Helburuak

- Eraginkortasun politikoa eta ahalduntze pertsonala eta kolektiboa uztartzeko herri-ekimenez sortutako lan-dinamiketan zein erakundeetan kontuan hartu beharrekoei buruz gogoeta egitea.
- Antolaketa eta funtzionamendu moduak autokritikoki aztertzea.
- Herri-mugimenduko kideen aniztasunaz hausnartuz, botere-asimetriak sortzen dituzten faktoreak identifikatzea eta asimetria horiek lantzeko orientabideak zehaztea.

Gaiak

- Arlo pertsonala eta kolektiboa militantzian. Barne aniztasunaz jabetzea (konpromiso eta erritmo ezberdinak), rol banaketak eta nahi gabeko espezializazioak (ezkutuko lanak eta prestigiotsuak...); guzti honek proiektu politikoarekin duen harremana.
- Talde-izaera eta talde-lana. Ahalduntze pertsonala eta kolektiboa; lidergo partekatua (horizontaltasuna) eta hierarkia ezkutua (bertikalitasuna); harrera eta taldekide bilakatze prozesuak.

BIGARREN ATALA: HARREMANAK, ZAINZA ETA PARTE-HARTZEA

Helburuak

- Jarduera politikoaren ikuspegi integrala lantzea; gorputza, emozioak eta ideologia uztartuz.
- Norbanakoaren, taldearen eta proiektu politikoaren zaintzaren inguruko gogoeta egin eta orientabide praktikoak definitzea.
- Bileren eta lan-dinamiken parte-hartzea orekatze bidean tresnak lantzea.

Gaiak

- Norbanakoaren, taldearen eta proiektu politikoaren zaintza. Hiru dimentsio horien arteko oreka.
- Parte-hartze orekatuaren dinamizazioa. Bilerak antolatzeko eta dinamizatze metodologiak; lanaren planifikazioa.

HIRUGARREN ATALA: ALIANTZAK ETA ELKARLAN POLITIKOA

Helburuak

- Herri-mugimenduen arteko elkar-ezagutza eta elkarlanaz gogoeta egitea.
- Saretzeko eta elkarlanean aritzeko dauden zailtasunak eta hobetu beharrekoak aztertzea.
- Herri-mugimenduen eta administrazioaren arteko harremanetan aukerak eta arriskuak identifikatzea eta horiei buruz hausnartzea.

Gaiak

- Mugimenduen arteko harremanak eta artikulazioa. Saretzea eta sarean modu eraginkorrean lan egitea.
- Herri-mugimenduak eta erakunde publikoak. Aurkakotasuna, elkarlana eta elkarreragina.

2. BLOKEA: ZAPALKUNTZAK ETA ALTERNATIBA ASKATZAILEAK

LEHEN ATALA: BEGIRADA KRITIKOA ZORROZTUZ

Helburuak

- Pentsamendu bakarraren/hegemonikoaren aurrean ikuspegi kritikoaren inguruko eztabaida zabaltzea eta formakuntza politikoaren beharraz eta mugez hausnartzea.
- Begirada kritikoa hainbat ikuspegitatik lantzeko tresnak aztertzea eta zapalkuntzen jatorria eta egungo mekanismoak aztertzeke giltzak eskuratzea.

Gaiak

- Pentsamendu bakarra/hegemonikoa vs ikuspegi kritikoa eta formakuntza politikoa.
- Kolore ezberdinetako betaurrekoak. Begirada kritikoak hainbat ikuspegitatik lantzeko tresnak.
- Koiuntura azterketak eta hausnarketa estrategikoak egin ahal izateko giltzak.

BIGARREN ATALA: ZAPALKUNTZEN JATORRIA

Helburuak

- Jendarte-eredu honetako zapalkuntza anizkoitzen oinarritzko kritika egitea.
-

-
- Sistemaren funtzionamendua osotasunean ezagutzea eta zapalkuntza formak harremanetan jartzea.
 - Zapalkuntzen oinarri komunak identifikatzea eta gure eguneroko praktika pertsonalarekin duten loturez gogoeta egitea.

Gaiak

- Zapalkuntza anizkoitzen sistema (sistema, makroa).
- Zapaldu/zapaltzaile. Zapalkuntzak subjektuen gorputzetan (subjektua, mikroa).
- Interseksionalitatea. Definizioaren gainean kolektiboki gogoeta egitea eta bere mugei eta potentzialtasunei buruz hausnartzea eta eztabai-datzea.

HIRUGARREN ATALA: ZAPALKUNTZAK GAINDITZEKO ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

Helburuak

- Jendarte-eredu honetako zapalkuntza anizkoitzen eraldaketa orokorra sustatzea.
- Sistema bere osotasunean gainditzeko alternatiba askatzaileak partekatzea eta esperientzia horien potentzialtasunak eta arriskuak aztertzea.
- Eguneroko kontraesanen eta koherentzien kudeaketen gaineko hausnarketa eta eztabaida zabaltzea.

Gaiak

- Proposamen askatzaileak.
- Kontraesanen eta koherentzien kudeaketa.
- Praktika kolektiboak. Nazioartean zein EHan sortu diren zein sortzen ari diren alternatibak.

Iturria: 3. edizioko ikastaroaren gida

BALORAZIOA

Zabalera asko, sakontasun-maila ezberdinak

Esan dugun bezala, gaiak aukeratzeko orduan bilatu genuen anitzak izan zitezela, begirada eta kokapen ezberdinetatik jorratzeko aukera eman zezatela, euren arteko loturak egitea eta osotasun bat ahalbidetu zez-

tela. Gainera, herri-mugimenduen behar zehatzetatik sortutako arazoak jorratu eta herri-mugimenduentzat estrategikoak izan zitezkeen aferak plazaratu genituen. Zentzu horretan, gaitegia herri-mugimenduetako beharretara ondo egokitu zela baloratu zen.

«Landutako gai asko gure herri-mugimenduetan lantzeko beharrezko ikusi ditut», «Behar izugarria dago herri-mugimenduetan gai hauek lantzeko»
(3. edizioa, partaideak)

Aitzitik, gaitegia sarri zabalegia izan zela ere baloratu genuen, eta horrek bere alde onak eta txarrak zituen. Zenbait partaideen iritziz, zabala izateak norberaren intereseko gaiak topatzea ahalbidetzen zuelako, baina, aldi berean, partaide guztiak aseko zituen sakontasun-mailara ez heltzeko arriskua ere bazekarrela baloratu zelako.

Gaiak lantzeko sakontasun-mailaren inguruan, hiru edizioetan errepikatu ziren iritzi eta bizipen kontrajarriak, bakoitzaren esperientzia eta gaitegiarekiko hurbiltasunaren arabera. Batzuentzat hainbat gai azalekoegiak edo errepikakorregiak izan ziren, eta, pertsona horien ustez, ez genuen oinarrizko debateetatik haratago joateko aukerarik izan. Beste batzuentzat, ordea, bizipena bestelakoa izan zen.

Asteburuaren aurretik lantaldeetan egindako lanarekin lotura izan dezake horrek. Izan ere, lantalde batzuetan asteburuak baino lehen talde txikiko *aurre-etzabaidak* izan zituzten, honela, partaideei asteburuan jorratuko ziren gaietikoko kokapen hobe eta sakontzeko gaitasun gehiago emanaz. Dena den, badira beste hainbat alderdi ere gaietan sakondu ala ez eragiten dutenak. Edizio bakoitzeko kideen ibilbideak eta momentuko interesak, egindako dinamika, talde-giroak eta espaziok... horrek guztiak gai zehatzei buruzko azterketa kolektiborako gaitasun ezberdinak dakartza, eta, aldagai horien guztien konbinazioak, urtero emaitza eta sakontasun ezberdinak ekarri zituen.

Edukien transmisio hutsa ekidin nahian, gaitegia lantzeko talde-dinamika ugari prestatu ziren aurrez aurreko saioetarako. Baina egia da baita zenbait

unetan saio teorikoagoak edo magistralagoak ere faltan bota zirela, eta, zenbaitetan, dinamikek pisu gehiegi hartu zutela edukien kaltetan. Zentzu horretan, gure hautu metodologikoaren erdigunea zen formakuntza-prozesuan zehar agertuz zihozten gaien, arazoan eta esperientzien arteko loturak egitea. Izan ere, ikastaroko edukiak, eta, haiek lantzeko moduak, ez zeuden bat-bateko emaitza edo ideia distiratsuak lortzera bideratuak.

Hala ere, gaien sakontasun-mailaren inguruko balorazio zehatza egitea zaila egin zitzaigun, izan ere, esan bezala, partaideek gaiekiko zuten ezagutza, gaitegiarekiko zitzuten espektatibak eta pertsonalki egindako lanketak ezberdinak baitziren. Azpimarratu dezakeguna da gaitegiko bigarren blokeko zapalkuntzen jatorriari buruzko atalarekin lotutako gaietan zein borroka instituzionalaren inguruko hausnarketetan sakontzeko gogoia nahiko orokorra izan zela hiru edizioetan. Eta, kontrara, herri-mugimenduen antolaketa, funtzionamendu eta barne-bizitzari loturiko gaietan sakontasun handiagoa lortu zela.

Asebetetzea

Lehenengo edizioaren bukaerako balorazioan gaitegiari eta edukien lanketari dagokionez asebetetze-mailak ezberdinak baziren ere, hurrengo bi edizioetan gaitegiarekiko asebetetze-maila handitu egin zen.

Azken edizioan, esaterako, gaien arteko loturak sendotzeko egindako ahaleginak egoki ikusi ziren. Oro har, gaitegiari osotasuna emateko gaitegiko gaien artean loturak egitea zeregin erraza eta garrantzitsua izan dela baloratu zen.

Dena den, edizio guztietan errepikatu zen partaide batzuek gaitegia abstraktuegia zela adieraztea; baita sarritan *lurreratze*ko zailtasunak izaten zituztela eta orientabide gehiago izatea gustatuko litzaiekela esatea ere.

Zentzu horretan, baloratu genuen lagungarria izango litzatekela gaitegia osatzerakoan partaide orok eduki bakoitzarentzat eskuratu beharreko

hainbat lorpen-adierazle⁴ zehaztea. Horrek aukera emango bailioke BPPari partaideek eduki bakoitzarekiko lortutako hurbilpena eta asebetetze-maila hobeto neurtzeko eta ikastaroaren helburu orokorrak egokiago baloratzeko.

Ikuspegi aniztasunaz eta interseksionalitateaz

Ikastaroan zehar eduki guztiak begirada feminista, antikapitalista eta dekolonialetik lantzea zen asmoa. Gaiak eta egoerak interseksionalki aztertzeko gaitasuna landu nahi genuen, formakuntza politikorako esperientzietan begirada baztertzailleak ekiditeko nahiz herri-mugimenduen arteko aliantzak eta artikulazioak errazteko. Dena den, horretan ez genuela beti asmatu baloratu genuen.



Gaiak zapalkuntza guztiak aintzat hartuz lantzeko genuen arduraren horretatik, zapalkuntzen arteko hierarkizazioak baztertu eta errealitate, bizipen eta borroka guztiei leku bera ematen saiatu ginen hasieratik. Gaiak hainbat ikuspegitatik jorratzeaz gain, ikuspegi horietan zentratzea eta sakontasuna bilatzea beharrezkoa zitzaigun.

4 Eduki bat landu ostean partaide orok eskuratu beharreko gaitasun zehatz bat.

Adibidez, lehen edizioan Zubietan eraikitako erraustegiaren kontrako plataformako bi kide etorri ziren, eta, borroka zehatz hori, hainbat ikuspegitatik azaldu izana (genero ikuspegia, ekologismoa, osasungintza, urbanismoa, etab.) oso ondo baloratu genuen; egoera zehatz bat zeharkatzen duten zapalkuntza lerro guztiak ikusarazteko modua izan zen.

Ikuspegi-aniztasunari (edo horren faltari) buruzko iritzi eta bizipen ezberdinak izan genituen edizio bakoitzean. Begirada zorrozten eta beste begirada batzuetatik ikusten ikasi izana balioetsi zuten partaide batzuek; beste batzuk, ordea, askotan gaiak posizio bakar batetik irudikatu genituela azpimarratu zuten eta ikastaroko taldean ordezkatura ez zeuden kanpo begiradak falta izan zirela.

«Interseksionalitatearen gaian zuzenean interpelatuko gaituen norbaiten beharra dugu. Hau da, emakume txuri batek dena esplikatzea oso ondo, baina niri asko gustatuko litzaidake zuzenean interpelatzen gaituzten egoerak eta bizipenak kontatzera emakume beltz bat etorriko balitz adibidez. Hau da, kanpoko begirada.» (3. edizioa, partaideak)

Gaurkotasunezko gaiak

Gaiak aukeratzeko orduan, herri-mugimenduetan eta jendarteetan pil-pilean zeuden edo egon zitezkeen gaiak lehenetsi nahi izan genituen. Lehenengo edizioaren bukaerako balorazioan, ordea, gaurkotasun handiko gaiak lantzea falta izan zela aipatu zen.

Hori konpondu nahian, erabaki batzuk hartu genituen hurrengo ikasturteei begira. Batetik, asteburuko ibilbide metodologikoa prestatu behar zuen lantaldeak lanketan integratu behar zituen unean uneko gai edota borrokek. Bestetik, BPPko kideok eztabaida pizteko edo gaitan sakontzeko erabili behar genituen gaurkotasunezko gaiak, baita horien inguruko asteburu osterako lanketak proposatu ere.

Horrela, bigarren edizioaren bukaeran *unean unekora* gehiago hurbildu ginela baloratu bazen ere, norabide horretan oraindik ere bidea egiteko genuela sumatzen zen; ikastaroko aurrez aurreko saioetan izaten genituen eztabaiden eta kalean zeuden kezken artean desfase bat nabaritzen baitzen oraindik.

Asteburuetakoko tarte informalak (otorduak, atsedenaldiak, gaubelak...) izan ziren une hartan pil-pilean zeuden gaietarako buruzko elkarrizketa eta gogoeta gehien eman ziren momentuak.

«Kalean gertatzen ari dena gune informaletan hitz egiten dugu eta gaitegian ez dugu txertatua. Duela 4 urte pentsatu genuen kalean gertatzen ari zena gaitegian txertatzea, baina gauza batzuekin aparte gelditu gara. Herri-mugimenduetan dauden eztabaida batzuei zuzenean heltzeko ausardiarik ez dugu izan. Esperientzia batzuk bai atera dira, baina agian eskas gelditu dira.» (3. edizioa, BPP)



Gaiak geureganatu: geure erara, geuretzat baliagarri

Euskal Herriko testuinguru politikoa nahitaez aldatu da urte hauetan; eta, formakuntza politikorako esperientzia honek iraun bitartetan ere (2015-2018) aldatu ziren herri-mugimenduen kezkak, beharrak eta premiak ere, hein batean.

Nahiz eta hiru edizioetan gaitegia berdintsua izan, talde bakoitzak bere egin zuen, eta formakuntza-prozesuan zertzelada edota ikuspegi ezberdinak garatu ziren edizio bakoitzean.

«Guk ere eragin handia izan dugu gaitegian, hau da, talde bakoitzak bere filrotik pasatu ditugu gaiak eta norabide bat eman diegu. Gure nahietara egokitu ditugu gaiak.» (3. edizioa, partaideak)

Jendea, oro har, gustura geratu zen gaitegiarekin; baina, batez ere, gaitegia lantzeko modua izan zen partaideek hobekien baloratu zutena. Izan ere, gaiak lantzeko modua ere edukia da, batzuetan *metodologia* eta *gaia* gehiegi banatzen ditugun arren.

Oso ondo baloratu zen beste kontu bat taldeek euskarri eta baliabide *didaktiko* propioak sortzea izan zen (esku-orriak, liburuxkak, laburpen dokumentuak...), baita horiek norberak bere mugimendura eramateko aukera izatea ere. Edukiak *lurreratze*ko lagungarri izan zelako, ziur asko.

ERRONKAK ETA IKASITAKOAK

Ikastaroaren gaitegiaren inguruko balorazioetatik eta gogoetetatik, lagungarriak izan daitezkeen ondorengo gakoak atera ditugu:

- Gogoetak zapalkuntza anitzen ikuspegitik egiteko bitartekoak jarri behar ditugu. Gure lekutik umiltasunetik arituz, dauzkagun mugak azalduz: kanpoko kokapenei, begiradei eta esperientziei leku eginez,

inoren hitza ordezkatu gabe; eta ikuspegi feministan, antikapitalistan nahiz dekolonialean sakonduz.

- Lantzeko gaiak anitzak izatea eta ikuspegi ezberdinetatik jorratzeko aukera ematea garrantzitsua da herri-mugimenduetan dauden arazoak, kezka eta beharrak mahaigaineratzeko eta gogoeta asko eta askotarikoak garatzeko. Gaien artean loturak egitea eta arazo zehatzak osotasun batean kokatzea beharrezkoa da, betiere. Gainera, gaiak tartekatzeak partaideen interesetara eta beharretara egokitzeko aukera pedagogikoa eskaintzen digu.
- Gaietan sakontzeko beharrezkoa da: gaien eta arazoaren arteko loturak indartzea, gaitegia zehaztean errepikapenak ekiditea, oinarri edo abiapuntu zein lorpen komunak zehaztea, ikuspegi anitz izatea kontuan nahiz kanpo-begiradak txertatzea edota eztabaida handia piztu dezaketen gaiak jorratzeko bitartekoak jartzea.
- Ikastaroaren iraupen eta ezaugarrietara egokitu behar da gaitegia (ibilbide metodologikoa, tokia, helburuak...). Era berean, partaide guztientzat aberasgarria den formakuntza-esperientzia bat sustatu behar da, abiapuntu ezberdinak ditugula kontuan izanik eta ezagutza ezberdinak probestuz.
- Gaitegiaren zabalera, irekiera nahiz malgutasunaren alde lan egin behar da: ikastaroan zehar sor daitezkeen arazo, kezka eta egonezina jorratzeko aukera emanaz, gaurkotasan handiko gaiak eta eztabaidak barne bilduz, herri-mugimenduaren beharretara egokituz eta ikuspegi estrategikoa mantenduz. Interesgarria da gaitegia geure egitea, geure erara moldatzea eta era askotako euskarriak sortzea. Ikastaroan landutako edukiak eta egindako dinamikak euskarri fisikoetan biltzea ere garrantzitsua da, besteak beste, partaideek ikastaroaren fruituak euren kolektiboetara eramateko modu aproposa izan daitekeelako.

- Gaitegiarekiko asebetetze-maila neurtzeko gai bakoitzarentzat partaideek eskuratu beharreko lorpen-adierazle komunak zehaztea lagungarri izan daiteke. Horrek gaitegia *lurreratze*ko orientabideak emateaz gain, ikastaroaren helburu orokorren lorpen-maila zehatzago neurtzeko aukera eskainiko digu.


3.2 Ikastaroaren antolaketa: lantaldeak

Pil-Pilean ikastaroan taldea zen ezagutza-subjektua⁵ eta ideia hori bere dimentsio guztietan saiatu ginen praktikan jartzen, baita antolaketan ere. Kide guztiek hartu zuten parte ikastaroaren prestaketan eta dinamizazioan, asteburuero lantaldeka zeregin zehatz bat aurrera eramanez. Herri-hezkuntzako zenbait formakuntza-esperientzian inspiratuz, lankidetzaren eredu errotazio bidezko antolaketa deszentralizatuan oinarritu zen.

Partaide guztiek eta BPPko kideek osatutako talde handia lau lantaldetan banatu zen. Lantaldeak osatzeko irizpidea geografikoa izan zen, unean uneko bizilekuaren arabera, batik bat. Izan ere, ikastaroaren momentu ez-prezentzialetan biltzeko erraztasuna izatea lehenetsi zen. Kopuru aldetik orekatua izateaz gain (7-10 kide lantalde bakoitzeko), lantalde bakoitzean bikote pedagogiko gisa BPPko bi kidek parte-hartzea nahi izan genuen, ahal izan genuen guztietan bermatuz hori. Honez gain, lantaldearen funtzionamendua ahalik eta eraginkorra izan zedin, lantaldean astebururako zereginak adostu ostean bi edo hiru kideko talde txiki hartzen zuten zeregin zehatzak lantzeko ardura, modu horretan taldeko kide guztien artean banatuz lanak. Bigarren irudian jaso dugu barne antolaketa eta funtzionamendu-eredua modu grafikoan.

5 Taldeak ikasi behar du, bere errealitate anitzek eragindako behar eta interesetatik abiatuz, zer eduki, zer helbururekin eta nola landu erabaki eta planifikatzen; ezagutza-hartzaile huts izatetik, ezagutza-igorle edota sortzaile ere izateko. Horrez gain, formakuntza-prozesu baten prestaketa dagozkion alderdi guztien kudeaketa egiten ere ikasi behar du. Hori da guretzat taldea izatea *ezagutza-subjektua*.

2. irudia. Barne antolaketa eta funtzionamendu-eredua



Iturria: Joxemi Zumalabe Fundazioa

5. taula. Asteburuen antolaketa lantaldeka: errotazio-eredu deszentralizatua.

	AZPIEGITURA ETA GOXOTASUNA	GOGOETA	PATXADA/PATXANGA	SISTEMATIZAZIOA
1. ASTEBURUA (ATARIKOA)	Bilgune Politiko Pedagogikoa (BPP)			
2. ASTEBURUA	A lantaldea	B lantaldea	D lantaldea	E lantaldea
3. ASTEBURUA	E lantaldea	A lantaldea	B lantaldea	D lantaldea
4. ASTEBURUA	D lantaldea	E lantaldea	A lantaldea	B lantaldea
5. ASTEBURUA (ITXIERA)	B lantaldea	D lantaldea	E lantaldea	A lantaldea

Iturria: Joxemi Zumalabe Fundazioa

Lau lantaldek eta lau zereginiek ardazten zuten antolaketa-eredua eta aste-bururo lantalde bakoitzak errotazioz zegokion zeregina zeraman aurrera (ikus 6. taula). Hona hemen ikastaroan zehar lantalde bakoitzak gauzatu beharreko lau zereginen laburpena.

1. *Gogoeta*: edukiak aukeratzea eta metodologiak prestatzea; aurrez aurreko saioak dinamizatzea.
2. *Azpiegitura eta goxotasuna*: logistika, azpiegituraren egoera, elikadura eta garbiketa koordinatzea.
3. *Patxada eta patxanga*: asteburuetako harrera, itxiera, momentu informalak eta arlo ludikoa lantzea.
4. *Sistematizazioa*: eduki garrantzitsuak eta ikasitakoak idatziz edota ikus-entzunez erregistratzea, eta sintesia koordinatzea.

Barne-antolaketa eredua berdintsua izan zen edizio guztietan zehar. Zereginen izendapenei dagokionez, ordea, *Azpiegitura eta goxotasuna* izatera pasa zen bigarren ediziotik aurrera hasiera baten *Zaintza* gisa izendatu genuena; izan ere, talde-zaintza partaide eta lantalde guztien ardura gisa ulertzea beharrezkoa zela ondorioztatu genuen.

Partaideen dedikazioari zegokionez ere, bigarren edizioan hainbat zehaztapen egin ziren: lehen edizioan lantaldereen batean gertatutako lan desorekek zerikusia izan zutelarik horretan. Horri dagokionez, bigarren edizioko ikastaroaren gidan hitzez hitz zera jaso zen:

«Antolatzeko modu honek konpromiso eta dedikazio berezia eskatzen du partaideen aldetik. Hauexek dira, kurtsuan izan beharko duten inplikazio pertsonal zein kolektiboari begira, zeregin nagusiak: aurrez aurreko saioetan parte-hartzea, online jarraipena egitea, ikastaroaren koordinazioaren ardura hartzea eta bestelako zeregin batzuk burutzea.»

Ikastaroko lehen asteburuan (atariko asteburua) lantaldeak osatzen zirenean, euren burua izendatzeko eskatzen zitzairen lantaldeei. Bigarren asteburuan talde bakoitzak bere izena (eta eratzen ari zen izana) aurkeztu ohi zuten taldearen aurrean. Ariketa horren bidez taldekideen artean harremanak sortzen hastea, konfiantza zein kohesioa bilatzen ziren, eta, horrela, lantaldeak talde gisa funtzionatzen hastea.

6. taula. Lantaldeak eta lantaldeen zereginak

GOGOETA

- Asteburuan landuko diren edukiak aukeratu, zehaztu eta mailakatu; gaitetik helburu eta edukiak kontuan hartuz eta gaurkotasuneko gaiak lantzen direla bermatuz. Erabaki zer landu aurrez aurrekoan, eta, behar izatekotan, online.
- Beharrezkoak diren materialak bildu eta kideekin konpartitu: irakurgaiak, bideoak, dinamiken ibilbideak eta ondorioak.
- Hautazkoak diren materialen zerrenda osatu.
- Asteburuko metodologia prestatu; kontuan izanda balorazio-dinamika ere prestatu behar dela.
- Dinamiketarako behar diren materialak bertan egongo direla ziurtatu: *papelgrafoak*, proiektorea, boligrafoak, orri zuriak...
- Dinamiken dinamizazioa egin.
- Plenarioetan parte-hartzea orekatzeko metodologiak prestatu.
- Denborak zaindu.
- Gogoetarako garrantzitsuak diren eztabaidak erregistratu: plenarioetako akta jaso, beharrezko argazkiak egin...
- Asteburuan erregistratuekin itzulera dokumentua prestatu eta partekatu. (Dokumentuaren atalak: *Portada*, azpitaldearen izenarekin; *Asteburuko helburuak*; *Ibilbide metodologiko garatua*, dinamika bakoitzaren azalpenarekin; *Eztabaiden laburpena*, jasotako erregistroetatik abiatuz; *Balorazioa*, ondorio orokorrak ateraz)

AZPIEGITURA ETA GOXOTASUNA

- Otorduetako menuak erabaki eta erosketak egin.
- Sukaldariekin menua kontrastatu.
- Janaria prestatzeko behar diren tresnak bertan egongo direla ziurtatu.
- Garbiketarako beharrezkoak ditugun tresnak bertan daudela ziurtatu.
- Partaideek eraman behar duten gauzen zerrenda osatu eta plataforma kudeatzen duen kideari komunikatu: lo zakuak, mantak, esterilak lekuaren arabera, tuperrak, edalontziak, mantak, oihalezko ahozapiak... .
- Lekura nola heldu adierazi (mapa) eta bertara heltzeko antolaketa prestatu.
- Garbiketa txandak antolatu.
- Gunea eroso egin: behar badira berogailuak jarri, atsedean tartekak zaindu, atsedendietarako infusio, gailera, bizkotxo... prestatu.
- Behar bereziak dituztenen eskaerak aintzat hartu: janari bereziak, aniztasun funtzionalak, itzulpen beharrak, haurren zaintzak...
- Asteburuko ordutegiak betetzen direla ziurtatu.
- Segurtasun espazioa atondu edota prestatu, adi egon momentu konkretuetan norbaitek izan ditzakeen arreta bereziei.
- Botikina dagoela ziurtatu.

SISTEMATIZAZIOA

- Proposatutako *sistematizazio ardatzarekin* zerikusia duten eztabaida eta gogoeten erregistroa egin, aktak jasoz: izandako eztabaida interesgarriak, ekarpenak, bizi izan den giroa... (plantilla-sistema gomen datzen da.)
 - Ikus-entzunezko erregistroak hartu: argazkiak, bideoak...
 - 15-20 lerroko asteburuaren kronikatxoa idatzi, asteburuan egindakoa deskribatuz. Kronika hori Joxemi Zumalabe Fundazioaren webgunean argitaratuko da, beraz, asteburuan parte hartu ez duten pertsonak ulertzeko moduko kronika izan behar du.
 - *Sistematizazio memoria* egin eta helarazi. (Memoriak izango dituen atalak: *Portada*, azpitaldearen izenarekin, *Asteburuaren kronika*, *Sistematizazio ardatzari buruzko erregistroen analisisia*.)
-

PATXADA ETA PATXANGA

- Harrera eta itxiera ekitaldiak antolatu.
 - Espazioak atondu (dekorazioa...).
 - Gauetako ekintzak prestatu eta beharrezko materialak lortu.
 - Taldearen egoerari adi egon: saioak oso luze egiten ari badira, atsedena behar badugu, inora ez bagoaz, gatazka badago... badaezpadako dinamika prest izan (jolasak, adrenalina askatzekoak, atsedanak...)
 - Patxada eta patxangarako dinamiken zerrenda osatuz joan. Horrez gain, abesti, musika eta ikus-entzunezkoen zerrenda ere osatzen joan.
 - Auzolana, kirola, irteerak... egin behar badira horiek koordinatu.
-

Iturria: 2017/18 ikastaroaren gida

BALORAZIOA

Ezagutza-subjektuaren eraketa: indargune eta aukerak

Ikastaroko balorazio-aktetan azpimarratzen zen lantalde batean egoteak kokapen bat ematen zuela. Kokapena espaziala, denborazkoa eta afektiboa zela gaineratu dezakegu; ikastaroaren dinamika ulertzen eta mantentzen lagun zezakeen kokapena alegia.

«Lantaldea izatea oso ondo dago, horrela konfiantza, hurbiltasuna lortzea errazagoa baita.», *«Zeregin batekin zatoz asteburura eta kokatuta zaude...»*, *«Asteburu batetik bestera, zeregin zehatz bat antolatzekeo ardura izateak, ikastaroarekiko nolabaiteko jarraipena mantentzea ahalbideratzen du, hilabetetik hilabetera deskonektatzea eta gero konektatu ahal izatea.»*
(3. edizioa, partaideak)

Lantaldeak geografikoki antolatzeak era askotako eraginak izan zituen. Lehena, begi-bistakoa, partaideak inguru berdinekoak izateak koordinazio-lanak asko erraztu zituen. Horrez gain, kasu batzuetan egiteko moduen edo kultura militantearen eragina ere antzeman zitekeen. Beste askotan, gertutasun geografikoak alde zuzenetik elkar ezagutzea zekarren (ez beti,

dena den) edo partaide ziren kolektiboen artean aurretiaz elkarlana egon izana.

Ezagutza-subjektu bilakatzeko prozesuan lantaldeka funtzionatu izana ikasketa-prozesu garrantzitsua izan zela baloratu genuen. Zeregin ezberdinak txandakatzean oinarritutako funtzionamendu eta antolaketa deszentralizatuari esker, formakuntza politikoa modu integralean ulertu, praktikatu, bizi eta gorpuztu genuelako.

Are gehiago, norabide bakarreko formakuntza-ereduak (goitik beherakoak, edukien transmisiora mugatzen direnak, eduki gutxi batzuk goraiatzatzen dituztenak, jakintza asimetrian oinarritutakoak, ikasle-irakasle rol hertsia erreproduzitzen dituztenak...) iraultzeko urratsak eman genituela baieztatu genezake.

Elkarbizitzaren arloa garrantzitsua izan zen oso. Zereginak errotatzeak eta ikastaroko momentu presentzialetan funtzio zehatz bat izateak eragin zuen ohikoak diren baina normalean ezkutuan geratzen diren militantzia esparruko hainbat zereginen balio politikoa ematea eta formakuntza-prozesuaren erdigunean kokatzea. Formakuntza-prozesuan egiten zen guztia momentu pedagogiko gisa ulertzeak, antolaketa eta elkarbizitza kontu horiei guztiei balio politikoa aitortzea zekarren.

«Konbibiarentzina garrantzitsua da, errotazioak zereginetan, kokatuta egotea han zaudenean... balio politikoa ematea zeregin batzuei. Formakuntza integrala ematea da helburuetako bat», «Zeregin, rol... diskontinuitaterik ez egotea, dena da garrantzitsua eta momentu pedagogikoa.» (3. edizioa, BPP)

Bistan dago lantaldeka funtzionatzeko antolaketa-ereduak aukera eman zuela herri-mugimenduetako kideak euren borroketako subjektu aktiboak izaten jarraitzeko, eta euren eguneroko jarduna modu eraginkorrago eta askatzaileagoan egiten ikasteko. Lantaldeak formakuntzarako marko izan ziren, beraz.

Ikastaroan bizi edo gertatzen zen oro, baita lantaldeetako barne-bizitza ere, momentu pedagogiko gisa ulertzeak esan nahi zuen eduki politikoak eguneko edozein unetan topa eta eskura zitezkeela. Honela, ikastaroa irakaste-ikaste prozesu etengabekoa zen, eta, dudarik gabe, ohiko norabide bakarreko formakuntza-ereduek baino gogoeta politikorako eta eguneroko praktikarako tresna eraginkorragoak eskuratzea ahalbidetzen zuen.



Gogoeta zereginak nagusi

Lau zereginak ziren behar-beharrezkoak ikastaroa aurrera eramateko baina esan beharra dago gogoeta zereginei garrantzi eta dedikazio gehiago eskaini geniola. Bestelako zereginekin konparatuz, asteburuan zehar landu beharreko edukiak eta metodologiak prestatzeko lantaldetan gehiagotan bildu behar izan genuen, eta baita barne-mailako komunikazioa eta koordinazioa handitu ere.

Formakuntzaren ikuspegi multidimentsionalaren garrantzia sarritan aipatzen bagenuen ere, edukien lanketarako saio formalek garrantzi handia hartu zuten, eta, beste zereginekin konparatuz, desoreka nabarmena izan zen. Logiko ere izan daiteke desoreka hori gertatu izana, saio formalek eskaintzen baitzuten aukera gehien talde-gogoetak modu orekatuan garatzeko, praktikak sozializatzeko eta ikusarazteko. Baliabide metodologiko gehien ere eurek eskaintzen zuten ikastaroan eskuratzen gindoazen ezagutzak orokortzeko, sakontzeko eta landu izanaren kontzientzia hartzeko, partaide bakoitzari kolektiboki egiten ari ginen prozesuaz jabetzeko aukera emanaz.

Oro har, intentsitate handiarekin bizi izan genuen saio formalen antolaketa eta dinamizazioa; eta, kanpo- eta barne-presio edo exijentziak, beldurrak, urduritasunak eta ardurak ez ziren nolana hikoak izan.

Dena den, lantaldeek gogoeta zereginen ardura izan zutenean taldeko hesioa hobetu zutela baloratu zuten «*nabaritzen da harremanak eta konexioak sendotzen direla*» (3. edizioa, BPP). Eta, gogoeta zeregina lehenengo asteburuan tokatu zitzaienen kasuan, lantaldea hasieratik eratzeko lagungarria izan zitzaie; agian hori izan zelarik ikastaroarekiko bestelako konpromiso bat garatzeko gakoetako bat.

Sistematizazio zereginei dagokienez, aipatu behar da hiru edizioetako lantalde gehienetan sortu zituela buruhaustea. Zailtasun nabariak izan genituen asteburuetan jasotakoaz egiten zen balorazio soil bat baino gehiago dela azaltzeko eta ulertzeko, sistematizazioa prozesu kolektiboak aztertzeko eta berauetatik talde gisa ikasitakoak jasotzeko herri-hezkuntzaren tresna dela barneratzeko, hain zuzen. Hori dela-eta, sistematizazio zeregina formakuntza-prozesuetan praktikan nola landu sakonago hausnartu beharrekoa dela nabarmendu genezake.

Partaide askok konektatu zuten formakuntza eredu integralaren ideiarekin, eta, gogoeta zereginei ganoraz heltzeaz gain, *azpiegitura eta goxotasuna zein patxada eta patxanga* zereginei ere gogotsu eta arduraz ekin zieten. Momentu ludikoak taldea kohesionatzeko garrantzitsuak izan ziren, taldeko pertenezia-sentimendua areagotu zuten eta taldearengan eta egiten genbiltzan prozesuarengan konfiantza indartu zuten. Aipatzekoa da, hala ere, zenbait kidek zehazki zeregin hauekiko izan zuten utzikeria.

Gaubelak momentu bereziak ziren: musika, dantza, bideoak, ipuinak, masajeak, irratsaioak, jaiak, abestiak, meditazioak, antzerkiak, zein jolasak izan ziren, eta, gogoeta saioen aldean, beste nonbait kokatzen gintuzten; tentsioak baretzen ziren, gehiago irekitzen ginen eta elkarren arteko harremanak errazten ziren, besteak beste.

Patxada eta patxanga zereginetako batzuk ziren baita asteburuetako harrera eta agurra prestatzea eta dinamizatzea. Ostiraletan bakoitza norbere eguneroko erritmo eta kezkekin iristen ginen saioetara. Kezka edo zeregin horiek alde batera uzten laguntzen zuten harrerek, eta, bertan geunden pertsonekin, geunden lekuarekin eta unearekin sintonizatzen. Modu berean, igande arratsaldetan saioak ixteko lagungarri ziren. Urtero baloratu izan ziren positiboki momentu horiek, eta, erritualak, mistikak edo identitate ekintzak gure praktika politikoan modu kontzientean integratzea irakaspen bat izan zen guztiontzat.



Lantaldeen argi-ilunak

Hiru edizioetan lantalde ugari egon ziren eta euren barne-bizitza berezkoa izan zen, ezberdina eta errepikaezina. Eta, nola ez, zenbait lantaldetan zereginak aurrera eramateko askotariko desorekak izan ziren. Kasu batzuetan, desoreka horiek ikastaroan zehar landu behar izan ziren tentsio eta gatazkak sortu zituzten.

Komunikazio- edo koordinazio-arazoak egon ziren, eta, arazo horiek, hainbatetan, BPPko kideek lantaldetan zuten rolaekin lotutakoak izan ziren. Ikastaroak aurrera egin ahala BPPko kideek lantaldeetan zuten pisua gero eta txikiagoa izatea zen asmoa, baina beti ez zen horrela gertatu. Batzuetan, BPPko kideek hori nola egin ez zutelako asmatu; eta, besteetan, lantaldeetako kideek ardura eta lan horiek nola hartu ez zekitelako, edota hainbat arrazoi medio, ezin zutelako. Horrek BPPko kideekiko larregizko dependentzia izatea eta delegazio egoerak sortzea ekarri zuen talde batean baino gehiagotan. Beraz, BPPko kideek lantaldeetan izandako rolak eta funtzioak edota izandako bizipenak ezberdinak izan ziren.

Batzuetan, BPPko kideek gehiago gidatu zituzten lantaldeak hasieran, baina ikasturteak aurrera egin ahala, lantaldeak ardura gehiago hartzen zituen beregain. Honela, BPPko kideen ardura nagusia lantaldea bete beharreko helburuetatik gehiegi ez urruntzea eta prozesuan bidelagun gisa aritzea izan zen. Lantalde horietan lan banaketa orekatua eta bilera operatiboak egiteaz haratago, asteburuko gaiekin lotura zuten irakurgaiak lantzea eta etxerako lanei jarraipena egitea lortu zen. Horrek, kideen artean hausnarketa interesgarriak konpartitzea, eta, ondorioz, ikastaroarekiko gusturago sentitzea eragin zuen. Kasu horietan baloratu zen BPPren lan ikusezina bide osoan zehar egon zela presente eta horixe bera izan zela taldea sostengatzeko gakoetako bat.

Beste lantalde batzuetan, berriz, lan-dinamika desorekatua ikasturte osoan zehar mantendu zen; sarri BPPko kideek taldeak egin gabe utzitako lanak bere gain hartu behar izaten zituztelarik. Une horietan, BPPko bikote peda-

gogikoaren elkarlana eta elkarri babesa ematea gako izan ziren, euren hitzetan «*desorekan oreka*» lortzeko bazen ere. Eta, aldiz, lantaldean BPPko kide bakarra aritu zenean, eta, lantaldearen funtzionamendua ez zenean nahi bezain autonomia, lan-dinamika are eta zailagoa izan zela baloratu genuen.

Baina zer arrazoi izan ziren desoreka horietarako? Lantalde batzuk zergatik ez zuten guztiz *arrankatu*? Zer arrazoik oztopatzen zuten talde-dinamika kolektiboa? Hara hortxe geure buruei egindako zenbait galdera, erantzun bat bakarrik ez dagoela jakitun.

Dena den, ezer ez zen txuri edo beltz izan. Kontuan hartzekoa da taldeen osaketa heterogeneoa izan zela eta taldeko kideen interesak, espektatibak eta lanerako prestatutasun eta aukerak ere ezberdinak zirela. Lan-dinamika desorekatuaren arrazoia ez zen beti taldekide guztien erantzukizun edo ardura falta izan; nahiz eta begi-bistakoa izan partaide batzuen jarrera pasiboak edo *hartzaille* rolera mugatu nahiak edo beharrak talde-lan orekatuan eragin zuela.

Atxikimendua eta *deskolgatzeak*

Ikastaroan kultura politiko askotariko kideak egoteaz gain, argi zegoen kide bakoitzaren egoera eta disponibilitatea eta konpromisoa ez zirela berberak. Lantalde kohesionatuak eta eraginkorrak sortzeko asmo eta borondate on guztien gainera, aipatu aldagai horiek determinatu zuten, hein handi batean, lantaldeen funtzionamendua.

Ikastaroarekiko atxikipen eta dedikazio-maila ezberdinak zeuden, baina ezagutza-subjektu kolektiboa eratzekeo beharrezkoak ziren norbanakoaren konpromisoa zein ardura kolektiboa; eta, ikusi genuen, ikastaroan zehar edo ikastaroaren une zehatz batzuetan hainbat kidek *hartzaille* rola izan zutela, inplikazio-maila txikiagoa eta partaidetza pasiboagoa izanik. Dedikazioari edota dedikazio-falta horri dagokionez, bigarren edizioaren bukaeran BPParen baitan baloratu zen kurtsuari eusteko gakoetako bat izan zitekeela dedikazioak intentsitate ezberdinak izatea.

«Hori horrela izanik (gogoeta zereginei garrantzi eta dedikazio gehiago eskaintzea), kurtsoan zehar dedikazio une ezberdinak egotea positiboa dela uste dugu. Partaideen aldetik kurtso osoari eusteko gakoa horixe bera izan daitekeelako.» (1. edizioa, BPP)

Lehen edizioan ez bezala, bigarren eta hirugarren edizioetan hainbat partaidek ikastaroari *eusteko* arazoak izan zituzten eta horietako batzuk ikastaroa utzi zuten. Horrekin lotuta, ikastaroaren funtzionamendu- eta antolaketa-ereduak, ahaldundu beharrean, kide batzuegan *kale egitearen sentipena* ez ote zuen areagotu zalantza sortu zitzaigun; antolaketa eta funtzionamenduaren inguruko kezka indartuz BPPan.

«Formatuari dagokionean, agian jendea deskolgatzea normala da. Ahaldundu ordez... gure formatu exigente horrek bat egiten al du gaur egun herri-mugimenduetan dauden atxikimendurako zailtasunekin?», «Kezka nagusia izan da formatua: deskolgatzen den jendea, agian sortu behar dugu modu bat ikastaroaren partaide izateko eta beste bat hartzailerako izateko. Ez ote da exigentezia dedikazio aldetik? Gure formatuak egokitu behar ditugu partaideen bizi baldintzetara.» (3. edizioa, BPP)

Aniztasuna: heterogeneotasun homogenea

Hainbat errealitate, bizipen eta borrokatako kideak harremanetan jartzeak eztabaida politikoa aberasten zuen, eta, aldi berean, aniztasun horrek sor zitzakeen desorekak orekatzea formakuntza-prozesuaren bitartez gainditu beharreko erronka politikoa zen, formakuntza-prozesuan zehar ikasi genuen erronka hori gainditzeko estrategiak garatzen. Esan dezakegu, aniztasuna formakuntza-prozesu askatzaileetarako balio bat dela.

Begiratzeko erabilitako betaurrekoen arabera, aniztasun handiagoa edo txikiagoa aurki genezakeen ikastaroan. Arestian aipatu da ideologia edo sektore politiko ezberdinetako kideek parte hartu zutela, baina egia da, aldi berean, sektore edo herri-mugimendu batzuk beste batzuk baino errepresentatuago egon zirela. Hiru edizioetan gehiago izan ziren *ezker abertzalea-*

rekin identifikatzen ziren kideak edota *mugimendu feministako* partaide zirenak, beste sektore edo mugimendu batzuen aldean. Nagusitasun horrek eragin zuen zenbait unetan eztabaida politikoa parametro konkretu batzuetan zentratzea edota mugimendu batzuen agenda eta estrategia politikoak beste batzuenak baino nabarmenagoak izatea. Horrek gaiak planteatzeko moduetan eragina izan zuen, eta, hainbat baloraziotan, kide batzuek horrekin lotutako deserosotasun uneak bizi izan zituztela aipatu zuten.

Partaideen esperientziak eta kezka errealak ziren formakuntza-prozesuaren abiapuntu, eta, horrek, errepresentazio kontu horiei guztiei arreta berezia eskaini beharra eskatzen du. Sor zitezkeen eztabaida politikoen potentzial guztia aprobetxatu nahi bazen, ibilbide metodologikoen diseinuan kide guztientzat gertukoak ziren erreferentziak eta eztabaida-parametroak ezartzen asmatu beharra zegoen; eta, horretan, ez genuen beti asmatu.

Aniztasunaz ari garela, bukatu aurretik, inolako errepresentaziorik izan ez zuten sektoreei erreferentzia egitea ere badagokigu. Nork hartu zuen parte ikastaro honetan eta nork ez? Zergatik gertatu zen hori? Euskal Herriko herri-mugimenduetako kideen profil anitzak ikastaro bakarrean batzea ezinezkoa zela argi izanik, partaideen aniztasuna areagotzeko bitartekoak jartzen saiatu ginen.

Alde batetik, kontziente ginen ikastaroaren oinarri ideologikoak eta epistemologikoak zein ikastaroaren formatua bera hainbat sektore politiko ez hurbiltzeko arrazoi izan zitezkeela. Baina, gure hautua ahalik eta aniztasunik handiena biltzea zenez, edizio bakoitzaren hasieran arlo horretan genituen hutsuneak identifikatzen genituen eta hutsune horiek orekatzeko mekanismoak martxan jarri.

Neurri horietako batzuk BPParen osaketarekin lotuta zeuden; horrela, edizio guztietan saiatu ginen BPPa adin, ibilbide-militante, familia politiko eta genero ezberdinetako kidez osatuta egon zedin bermatzen. Ikastaroan zehar hartutako neurrien artean, aldiz, bestelako begirada batzuk mahai-gaineratuko zituzten kideak gonbidatu genituen aurrez aurreko saio batzue-

tara; baita ikastaroan zehar maila apalagoan jorratzen ari ziren eztabaida politikoei buruzko irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak landu ere.

ERRONKAK ETA IKASITAKOAK

Antolaketa-ereduari buruzko gogoetei esker, formakuntza politiko askatzailea birpentsatzeko eta berrezaugarritzeko baliagarriak zaizkigun gako batzuk eskuratu ditugu:

- Gogoeta politikorako eta eguneroko praktikorako tresna eraginkorragoak eskuratzea ahalbidetzen du ezagutza-subjektua taldea izateak eta lantaldekako barne-antolaketak.
- Lantaldeak formakuntza politikorako markoak dira (gune eta une pedagogikoak).
- Taldearen osaketa eta parte-hartzeko baldintzak kontuan izanik, dedikazioa baldintza horietara egokitzeko ahalegina egin behar da.
- Ikastaroaren iraupena ere osaketa eta parte-hartzeko baldintzetara egokitzea garrantzitsua da, ahal den neurrian murriztuz eta egitekoak *trinkotuz*.
- BPPak ikastaroaren jarraipena ahalbidetzeko bitarteko gehiago eskaintzea lagungarria da.
- Ondo legoke lantaldeek beren gain hartu beharreko zereginak hobeto definitzea, edota gutxitzea, eta airean gera daitezkeen zereginaz BPPa arduratzea.
- Interesgarria izan daiteke hartzaile hutsa edota partaide aktiboa izateko aukera biak zabaltzea, eta parte-hartzeko modu horiek kontrajarri gisa ez ulertzea.

- Ikastaroan zehar talde guztiak gainditu behar dituen mugarri komunak zehaztu beharko lirateke, inor kanpoan ez gelditzeko.
- Lortu beharko genuke taldea kohesionatzen duten elementuak identifikatzea eta egunerokoan txertatzea.
- Aniztasuna aintzat hartuz lan egiteko ezin da ezer egintzat jo. Sor daitezkeen desorekak orekatzeko neurriak jarri behar ditugu eta prozesu hori guztia ikasketa politiko gisa ulertu.

3.3 Ikastaroaren antolaketa: Bilgune Politiko Pedagogikoa (BPP)

BPPa ikastaroaren jarraipen- eta koordinazio-lanak egiteko ardurak zituen taldea zen. Bilgune honen izena eta izana herri-hezkuntzako hainbat formakuntza-esperientziatik hartu genuen maileguz; eta, bere funtzio eta egiteko nagusien artean, eduki eta metodologiaren diseinua zein antolaketa eta azpiegitura kontuen kudeaketa zeuden. Laburbilduz, formakuntza-prozesu guztiaren zaintza egin eta begirada osatua izatea zegokion bilgune horri.

7. taula. Bilgune Politiko Pedagogikoaren zereginak

- Ikastaroa prestatzea (gaitegiaren oinarritzko lanketa) eta koordinatzea.
 - Azpiegitura fisikoak eta digitalak kudeatzea.
 - Ikastaroaren eta partaideen jarraipena egitea.
 - Asteburuetakoa saioak aurrera eramateko sortuko diren lantaldeen erraztaile-lanak egitea eta baliabideak eskaintzea.
 - Finantzaketa propioa lortzea eta diruzaintza-lanak egitea.
 - Hilabetearen behin biltzea.
 - Partaideen zaintza eta jarraipena egitea, Moodleko foroan jarraipena egitea eta lantaldeetako zalantzak kudeatzea.
-

Iturria: 2016/17ko ikastaroaren gida

Lan horiek aurrera eramateko erregulartasunez biltzeaz gain, BPPko kideek ikastaroko lantaldeetan ere hartzen zuten parte. Posible izan zenean (ez baitzen urtero hala izan) lantalde bakoitzean BPPko bi kide egonik.

Batez ere Joxemi Zumalabe Fundazioko kideez osatutako taldea izan zen BPPa. Lehen edizioan 7 kide izan ginen, bigarren edizioan 12 eta hirugarren eta azken edizioan 10 kide. Proiektuaren sorrera-fasean eta lehen edizioaren diseinuan ibilitako hainbat kidek ikastaroaren koordinazioa utzi ahala, edizio ezberdinetan partaide izandako kideak batu ziren koordinazio-lanetara. Horrez gain, EHUko Soziologia zein Antropologia Graduetako hiru ikaslek praktikaldiak BPPan egin zituzten. Eta fundazioko bi liberatuak ere hiru edizioetan batzorde honetako partaide izan ziren. Etengabe berritzen zihoan taldea izan zen BPPa, beraz.

BALORAZIOA

Etengabe berrikusten

Lehen edizioaren amaieran egindako balorazioetatik abiatuz BPParen funtzioak eta egitekoak berriro definitu edota argitu behar izan genituen; ikastaroan zehar lantaldeen funtzionamendu eta antolaketa moduetatik ikasitakoek ere zerikusi handia izan zuten horretan. Bigarren edizioaren balorazioaren ostean ere lan-funtzionamendua hobetzen lagundu zuten beste hainbat proposamen jaso ziren:

Baga, asteburuetatik kanpo BPPko kideek izan behar zuten rolari zegokionez; beharrezkoa zela irakurgaien eta etxerako lanen jarraipena egitea eta lantaldeetan eztabaidak piztea eta gogoeta politikoa zirikatzea.

Biga, ikastaroko edukiak eta metodologia orokorra prestatzeko orduan, partaide guztiek jorratu beharreko edukiak lantzeko bitartekoak hobeto aukeratu edota bitarteko propioak sortu behar zirela. Izan ere, lehen bi edizioetan baloratu zen landutako zenbait irakurgai eta ikus-entzunezko desfasatuak eta astunak zirela, eta landu nahi ziren helburuekin ez zetozela bat.

Higa, eduki orokorrekin lotutako irizpide komunei dagokionez, lehen bi edizioetan gaitegiko *Zapalkuntzak eta alternatiba askatzaileak* blokeko hainbat eduki lantzeko orduan zailtasunak detektatu zirela. Izan ere, baloratu zen gai horiekiko partaide bakoitzak lortzen zuen hurbiltze- eta sakontze-maila oso ezberdina, eta, kasu batzuetan, desegokia zela. Gai horien lanketarako proposamen argirik ez izatearekin lotzen ziren zailtasunak. Horren harira BPPan eduki horien inguruan gogoeta egin genuen, irizpide komunak proposatzea beharrezkoa zela ondorioztatu eta mintegi monografiko bat egin genuen. Aipatu edukiak *Zapalkuntza-sistema anizkoitza*, *Bizitza-Kapitala kontraesana* eta *Interseksionalitatearen* gaiekin erlazionaturik zeuden zehazki.



Atal honekin amaitzeko, esan behar dugu azken edizioaren amaieran BPPa osatzen genuen kideok formakuntza-prozesuarekiko genituen espektatibei eta asebetetze-mailari buruz gogoeta egitea beharrezko ikusi genuela. Hori horrela izanik, bilgunearen funtzionamenduaren inguruko azken balorazioan BPPko kideok ikasitakoak zein sentimenduak partekatzeko tarte hartu genuen.

Gatazken kudeaketa

Formakuntza-esperientzia hark iraun zuen bitartean bi gatazka nagusi kudeatu behar izan zituen BPPak. Lehenengo gatazkak, proposamen politiko-pedagogikoari buruz partaide batek egindako kritika ez-eraikitzailea izan zuen jatorri; baita kide horrek beste kideekiko azaldu zuen jarrera desegoki, eta, hainbatetan, erasokorra ere. Bigarrenak berriz, ikastaroaz kanpoko pertsona baten presentziak hainbat partaiderengan eragindako ezerosotasuna izan zuen abiapuntu.

Gatazken berri izan bezain pronto, BPPak gatazka horiek kudeatzeko ardura zuela sentitu zuen, eta, berau kudeatzeko ekintza-plana diseinatzeari ekin zion, BPPko kidez osatutako talde txikiago bat eratuz. Talde txiki horrek, egiten zituen hausnarketak eta proposamenak BPPko kide guztiekin konpartitu eta adostu behar zituen.

Honela, bi prozesu horien kudeaketa aukera pedagogiko gisa landu behar zela eta hartutako erabakiak zein egindako bidea partaide guztiekin konpartitzea beharrezkoa zela adostu genuen BPPan. Horretarako, asteburuetan zehar (beharrezkotzat jotzen genuen une guztietan eta moduak zainduz, betiere) egoera gatazkatsu horien berri eman eta abiatutako prozesuen nondik-norakoak azaldu genituen. Azalpenak emateaz gain, hartutako neurrien inguruko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera ere eman genien partaideei. Gatazken kudeaketa-prozesu horietan izandako garden-tasuna eskertu eta balioan jarri zuten partaideek.

Horrek guztiak aukera eman zion taldeari norbere eguneroko errealitatean baliagarriak izan zitezkeen gatazken kudeaketari buruzko hainbat irakaspen politiko ateratzeko.

BPPko kideak: beste bat gehiago izan ote ginen?

Ikastaroko asteburuek aurrera egin ahala, BPParen rolak eta funtzioak nabarmenki aldatuz zihoazen. Atariko asteburuan edukiak eta metodologia

prestatzeko zein azpiegiturari lotutako zeregin guztiak kudeatzeko ardura zuen. Bigarren asteburutik aurrera, aldiz, partaidez osatutako lantalde bakoitzak zeregin bat kudeatzen zuenez, BPParen lanak nabarmen arintzen ziren. Horrela, ikastaroak aurrera egin eta lantalde bakoitzak bere egitekoak integratzen zituen heinean, ikastaroaren funtzionamendua ezagunagoa zen heinean... BPPak talde bezala zuen presentzia ere murriztuz zihoan.

Ikastaroko antolaketa politiko-pedagogikoan BPPa oinarritzko zutabea bazen ere, lantaldeen auto-antolaketa eta autonomia sustatzea ez zen bigarren mailako kontua. Eta, horretarako, beharrezkoa zen BPPa formakuntza-prozesuaren gidari izan baino, lantaldeen laguntzaile izatea. Horrek esan nahi zuen lehen asteburuan zuen zentraltasuna galtzen joan behar zuela, eta lantaldeek hasi behar zutela jartzen prozesu formatiboaren erdigunean. Hori dela-eta, asteburueta oharrak emateko unean izan ezik, oso gutxitan azaltzen ginen taldearen aurrean BPPko kide gisa. Arestian aipatu diren gatazken kudeaketak planteatutako *desagertze progresiboa* mugatu egin zuen, dena den.

Asteburueta BPP gisa izan genuen antolaketari dagokionez, azpimarregarria da arazoren bat identifikatzen genuenean soilik biltzen ginela, eta, hori oso gutxitan gertatu zen, momentu gutxi horiek asko nabarmendu ziren arren.

Bestalde, hainbat partaideri gertatu zitzaien moduan, BPPko hainbat kidek ere astebururen batean kale egin behar izan zuten. Eta, horrek, asteburueta talde handian sortzen ziren lan-dinamika zein bizipenak galtzea zekarrela baloratu genuen.

Antzeko zerbait gertatzen zitzaien BPPko kide bai baina lantalde zehatz bateko kide ez ziren pertsoneri. Edizio guztietan egon zen kideren bat egoera horretan eta ikusi genuen lantalde batean modu iraunkorrean ez parte-hartzeak bestelako *kokapen* bat zekarrela, bai ikastaroarekiko, orokorrean, bai eta asteburueta momentu formal eta informalekiko ere.

BPPa barrura begira: funtzionamendua, kideen sentimenduak eta ikasitakoak

Hiru edizioetan talde-babesa eta konfiantza nabarmenak izan ziren BPPan. Dena den, horrek ez du esan nahi tentsio- edota atsekabe-unerik bizi izan ez genuenik. Hasieratik kide berriei harrera egitea eta taldekide bakoitzaren disponibilitate eta parte-hartzeko baldintzei arreta jarri izana garrantzitsua izan zela baloratu genuen. Ildo horretatik, elkar ezagutzeko eta konplizitateak sortzeko lagungarria zen heinean, kide guztion arteko momentu informal gehiago ez izatea faltan bota genuen.

BPParen jardunak izandako ezaugarrien artean ondorengoak nabarmendu ziren: lan-dinamika bizia eta lanerako prestutasun handia, kide guztiak onartzea (gustuko genituen zein ez genituen ezaugarriekin), ziurtasun-etzak eta norbere zaurgarritasunak agertzeko gune segurua izatea, lan-karga handiko testuinguruan ardurak erlatibizatzeke eta erabakiak delegatzeko lasaitasuna, konfiantza talde-erabakiekiko nahiz norbere buruarekiko eta maitasuna proiektuarekiko zein kideekiko.

«Zirrara edo harridura (ona) sentiarazi dit entzuteko prest dagoen talde baten parte izateak. Lehenengo momentutik igarri dut hori. Baita lehenengo momentutik Zumalabeko kide izateko aukera ematearren. Oso natural egin zen eta taldeetan harrera egitea garrantzitsua dela uste dut.» (3. edizioa, BPP; edizio bakarrean BPPko kide)



Esan bezala, BPPan arazo, tentsio edo desorekak ere nabaritu genituen, ordea. Denborarekin hainbat desoreka gutxitzen joan ziren arren, lan-banaketari zegokionez, esaterako, Joxemi Zumalabe Fundazioko liberatuek zenbaitetan adierazi zituzten euren kezkak. Orokorrean talde-lanean oinarritutako lan-funtzionamendua baguenen ere, kideen arteko lan-karga ezberdinak zirela-eta, bileren prestaketa, dinamizazioa eta erabakiak helarazteko ardurua liberatuen esku utzi zen desiragarria litzatekeena baino gehiagotan.

BPParen bileretako gai-ordenei erreparatuz gero, ikus daiteke baita formakuntza-prozesua kudeatzeari beste gai batzuei baino denbora gehiago eskaintzen zitzaiela. Zentzu hertsian esanda, ikastaroko gaitegiarekin zerikusia zuten alderdiei ez zitzaien behar-besteko denborarik eskaini. Eta, ondorioz, edukiak lantzeko lagungarri izan zitezkeenak argitzen ez genuen behar adina denbora pasa.

Orokorrean, BPPko bilerak nahiko operatiboak izan ziren hiru edizioetan zehar. Gai-ordenetako puntu nagusiak hauek izan ohi ziren: asteburuari begirako zereginen jarraipena partekatzea, lantaldeen funtzionamenduaren berri ematea, lanak berrikustea eta banatzea. Garrantzitsua zen partaideen, lantaldeen eta zereginen jarraipena maiztasun batekin egitea (hilean behin); kezkak eta egonezinak partekatzeko, laguntza jasotzeko, eta, nola ez, babesa eta berotasuna sentitzeko.

Dagoeneko adierazi dugunez, ohikoa izan zen kide batzuk koordinazioa uztea, eta, aldi berean, kide berriak batzea. Sartu ziren kide gehientsuenak aurretik ikastaroko partaideak izan ziren; eta horrek ikastaroaren nondik norakoen inguruko kokapen sendoagoa ematen bazien ere, ikasitakoen eta sentitutakoen artean, hasierako ziurtasun-eza, kezkak, beldurrak eta lotsak gogora ekarri zituzten hainbat baloraziotan. Beldur edo lotsa horietako batzuk BPPko beste hainbat kidek formakuntzaren arloan zuten esperientziarekin loturik zeuden.

«Beldurrarekin hasi nuen ikasturtea eta Garaion-etik ere beldurrez bueltatu nintzen, beti egon da presente arrazoi ezberdinagatik. Lotsa ere sentitu dut,

nik BPPan ez nuelako nire burua ikusten. Baina pasada bat nola joan diren sentsazio horiek eboluzionatzen ikasturtean zehar.» (3. edizioa, BPP; bi ediziotan BPPko kide)

«Ziurtasun-eza sentitzen nuen hasieran, kezkek, nibela oso altu zegoelako kezka... Gero samurtasuna eta konfiantza joan naiz bizitzen; aukera eman dit esperimintatzeko eta ziurtasun-eza lantzeko. Prozesua aurrera joan ahala ziurtasun-ezean eroso egon naiz, sortu delako giro bat oso babestekoa (talde sinpatia eta poza). Gatazkak kudeatzeko prozesuak berak indartu gaitu, amorrutik bizi izan dut batzutan, sutu naiz, eta hori bizi izan dudanean jakin dut urruntzen.» (3. edizioa, BPP; bi ediziotan BPPko kide)

Proiektuan hastapenetik zeuden pertsonei dagokionez, nahiz eta prozesua hasieratik bukaerara bizitzeak dakarren gogobetetze politikoa ongi baloratu, hainbatetan prozesuarekin bukatzeko nahia, nekea eta desgaste-sentimenduak ere izan zituzten.

«Hirugarren edizio honetan gailendu zaidan sentsazioa ez da gozamina izan, gehiago izan da neke sentsazioa eta desgastea (hirugarrena izateagatik ere bai). Ezin dugu pentsatu formakuntza linealki baizik eta ziklikoki (hau hiru urtekoa izan da, jarraituko bagenu agian inertzia bat sortuko litzateke non gogoa agian gero eta gutxiago den). Irakaspen bezala: inertzia gogoga-bearekin kontuz!» (3. edizioa, BPP; hiru edizioetan BPPko kide)

Halaber, ikastaroa izan zen esperimentu hori hasi eta bukatzen ikustea, konstantzia bera, garrantzitsua zela aipatzen zuten, horrek gogobetetze sentsazio sakon bat zekarrelako.

ERRONKAK ETA IKASITAKOAK

- BPParen egiteko eta funtzionamenduak modu argian definitzea eta kide guztien artean konpartitzea garrantzitsua da. Ikasturte bakoitzeko partaideen ezaugarrien eta BPPko kideon baldintzen arabera funtzio horiek hobeto definitzea.

- BPParen bileretako gai ordenetan lau zereginetako bakoitzari eskaintzen zaion denbora orekatua izatea zaindu behar da.
- Talde-lanean oinarritutako funtzionamendua hobetsiz, desorekak ekiditeko eta lan-banaketa bermatzeko neurriak hartu behar dira.
- Gatazken aurrean talde gisa arituz, horien kudeaketa formakuntza-prozesuan kokatzeko bitartekoak sortu behar dira.
- Ez dugu ahaztu behar BPPko kideok formakuntza-prozesuarekiko ditugun espektatibak hasieratik kontuan izatea eta prozesuak sortutako asebetetzea baloratzea.

3.4 Formakuntza-momentu presentzialak

Ezbairik gabe, formakuntza-esperientzia haren ezaugarriarik bereizgarrienerarikoa formakuntza bera *egiteko moduan* jarri genuen arreta izan zen, une askotan edukiak berak baino garrantzitsuago izan zena. Hori erabat lotua zegoen esperimentu hura sustatu genuenok eraldaketa soziala ulertzeko dugun ikuspegiarekin: borroka-prozesuak borroka zehatzetatik lortzen ditugun emaitzak bezain garrantzitsuak direla uste izatearekin, alegia. Borroka egiteko moduekin lortuko ditugun emaitzak baldintzatuko ditugula ulertzen dugu, eta, kasu hartan, formakuntza egiteko moduekin formakuntza bera. Gainera, uste dugu metodologia taldearen oinarri ideologikoekin koherentea den hautu politikoa dela baita, eta hala izan zen orduko hartan ere.

Hori guztia kontuan izanda, gure formakuntzaren bizkarrezur ziren formakuntza-momentu presentzialak; ikastaroko aurrez aurreko saioak eta haien antolaketa, hain zuzen. Edizio bakoitzean bost asteburuz elkartu ginen; ostiral arratsaldetik hasi eta igande bazkalostera arte.

Hona hemen norabide horretan formakuntza-prozesuari buruz egin genituen hainbat zehaztapen.

- 1. Prozesu erakoa.** Txikitik handira zihoakeena; helburu handirik gabe, pausu erreal eta posibleak emanez.
- 2. Kritikoa eta askatzailea.** Eraldaketa soziala pentsatzeko, izendatzeko eta egiteko forma berriak arakatuko lituzkeena, behar kolektiboei erantzunez.
- 3. Egitean oinarritua.** Gure eguneroko praktikak eraldatzetik abiatuko litzatekeena. Amesten dugun jendartea gaurdanik praktikan jarritz; hemen eta orain hasi behar dugu egiten irudikatu nahi ditugun eszenatoki, praktika, sentimendu eta erlazionatzeko formak.
- 4. Sortzailea eta berritzailea.** Erregistro eta lengoia ugari zerabiltzana: hitzak, isiltasunak, gorputz-espresioa, mugimendua, jolasa, jai edota espresio artistikoa.
- 5. Interseksionala.** Zapalkuntza ezberdinak elkarlotuta daudela kontuan hartuko zuena.
- 6. Multidimentsionala.** Teoria eta praktika banatu ordeztuz, dimentsio asko harremanetan jarriko zituena: gorputza, emozioak, ideiak, afektuak, kontzeptuak, arrazoia, publikoa, pribatua...
- 7. Lankidetzan oinarritua eta txandakakoa.** Ikastaroa antolatu ahal izateko oinarritzko beharrei erantzuteko kudeaketa kolektiboa eta arduratsua lituzkeenak oinarri.
- 8. Ibiltaria eta deszentralizatua.** Aurrez aurreko formakuntza-saioak hainbat espazio eta lurraldetan eginez; ahal zen guztietan asteburuko jarduna garatzeko herri-mugimenduko espazioak lehenetsiz.
- 9. Bizipenetan eta bizikidetzan oinarritua.** Ideiek gorputzetatik pasa behar zuten; elkarrizketaren bidez eta elkarrekin eginez eta egonez.

10. Une oro zen momentu pedagogikoa. Saio formaletan lantzen genituen edukietatik otorduak prestatzeko genuen moduraino; formakuntza ikuspegitik gogoeta politikoa egiteko guztia zitzaigun baliagarri.

BALORAZIOA

Ikastaroaren balorazio-aktetan nabarmentzen da ikastaroa egiteko metodologia berritzailea izan zela; partaideek metodologia eraldatzaile gisa definitu zuten, egiteko beste modu batzuk bilatzen zituen, eskema zurrunetatik haratagoko begirada eskaintzen zuena. Teoriatik praktikara salto egiteko saiakera aipatzen zuten, eta, bizitakoa baliagarria zela herri-mugimenduetara itzultzeko eta politikoki eragiteko modu berriak izateko.

Ikastaroko dinamiketan zein zereginetan ikasitakoaz gain, ikastaroan zehar sarritan errepikatu zen esaldia izan zen *dena da momentu pedagogikoa*; momentu guztiei garrantzia aitortzeko beharra azpimarratuz eta momentu guztietatik ikas genezakeela mahai gainean jarritz: jatorduetan, dutxa garaian, zaborra ateratzean, lotarako antolatzeke moduan... asteburu horretan geunden kide guztiok izanik momentu horien parte.

BPPtik oso positiboki baloratu genuen sentitzea jendeak nola miresten zuen boterea banatzeko ahalegina, eta boterea ez metatzeak nola zekarren berekin egitura eta harreman-sarea *«hain horizontala izateak edozein problema edo ideia askoz errazago mahaigaineratzen laguntzen du»* (3. edizioa, partaideak).

«Ikasle-irakasle binomioa praktikan apurtzen saiatu ginen. Formakuntza-proposamen honen bereizgarrietako bat ezagutza-subjektua taldea bera dela zen. Eta, hortaz, taldea da formakuntza-prozesuaren norabidearen gidari. Hori dela-eta, ikastaroa gauzatu zedin bete beharreko zeregin guztiak hasieratik lantaldeka banatuta egon ziren. Kurtso hasieran koordinazio-taldearen rola eta bestelako partaideenak oso nabarmen markatuta bazeuden ere, kurtsok aurrera egin ahala taldeak, oro har, ikastaroaren ardura kolektiboa bere gain hartu zuen. Dena den, normala den bezala koordinazio-taldearekiko

dependentzia, delegazio edota ardura esleipen uneak ere bizi izan ziren.» (1. edizioa, sistematizazioa)

Ikastaroa aurrera ateratzearen ardura kolektiboa bazen ere, pertsona bakoitzak ikastaroari eskaintzen ziona eta hartatik atera nahi zuena ezberdina zen, eta berdina izan behar ez izateari heldu genion. Izan ere, pertsona edo talde bakoitza bere motibazio, interes eta behar zehatzekin etorri zen ikastarora. Hala ere, formakuntza-proiektu hark zituen helburuak kolektiboki betetzeko, ezinbestekoa zen kide bakoitzak bi arlotan aurrez zehaztutako gutxieneko dedikazioa izatea; alde batetik, ikastaroaren antolaketa kolektiboa zelako, eta, bestetik, norbere lantaldeak asteburu bakoitzean zituen zereginak aurrera ateratzea beharrezkoa zelako.

Parte-hartze orekaturantz bidean

Horizontaltasunak eta parte-hartze orekatuak ahots eta iritzi ezberdinek presentzia izatea bermatzen dute; talde-kohesioan, gehiegizko lan- eta botere-kargak ekiditen eta prozesuetan autonomia garatzen laguntzen dute; inposizioak egotea zailtzen dute; eta, taldearen jardueran eragiteko gaitasuna edo pisua kide askoren artean banatuta egotea ahalbidetzen dute.

Bide horretan, Pil-Pilen ikastaroan parte-hartze mota ezberdinak jarri nahi izan genituen balioan; batzuk hitzez adierazten zirelako erosoan, beste batzuk gorputzez, beste batzuk ez zutelako gorputzaldirik momentu horretako dinamikan parte-hartzeko, edota, beste batzuk, entzunez hartzen zutelako parte. Talde-dinamika batzuetan parte-hartzeko zenbait kidek agertu zuten erresistentzia zela-eta, eta, dinamiketan kanpo begirada izatea interesgarria izan zitekeela baloratu zenez, *behatzaile* rola sortzea erabaki genuen. Horrela, behatzaile rola zuten pertsonak dinamikatik at kokatzen ziren eta gertatzen zena ikusi, entzun eta sentitzen zuten. Dinamika bukatzen zenean ikusitakoa taldearekin partekatzen zuten eta taldearen antolatzeke, jarduteke eta parte-hartzeko moduei buruzko gogoeta egiten zuten. Dinamiketan murgilduta gaudenean, sarri ez dugu ikusten taldean zer gertatzen den, eta, behatzailearen rolak, taldean dauden parte-hartzeko

moduen kontzientzia hartzeko aukera eman zigun. Bestalde, lehendabiziko ikasturtean plenarioetako hitz-hartzeetan nabari ziren desorekak zirela-eta, parte-hartzea orekatzeko neurri zehatzak ezarri behar izan ziren hirugarren asteburutik aurrera; eta neurri horiek onuragarri eta irakaspen gisa baloratu ziren.

«Orokorrean talde-funtzionamendua eta parte-hartzea orekatua izan zela baieztatu dezakegu, dena den, horrek ez du esan nahi zenbait momentutan parte-hartzea mugatuagoa eta hitza une batzuetan kide gutxi batzuen esku soilik egon ez zenik. Horren adibide, hainbat momentutan eztabaidak nork hasten zituen eta nork amaitzen zituen bistaratzea oso esanguratsua izan zen.» (1. edizioa, sistematizazioa)

Jatorduak prestatzeaz arduratzen ziren kideak ikastaroko dinamikatik at zeuden herri-mugimenduetako militanteak ziren. Dena den, elkar ezagutzea sustatu eta beraiekin ere harremanak egitea garrantzitsua zen. Honela, kide horiek taldearekin jatorduak, gaubelak eta atsedeen-uneak partekatzeaz gain, asteburu bukaerako balorazio orokorretan ere parte-hartzen zuten. Eta, zentzu horretan, sukaldariak ere dinamika orokorraren parte izatea oso positiboa izan zela baloratu zen.



Desadostasunen gehiegizko kontentzioa

Talde-zaintza eta giro atsegina bermatzea beharrezkoa da horrelako formakuntza-prozesuetan, talde kohesioa eta konfiantzazko eremuak sortzea baita ikaskuntza kolektiboaren bermeetako bat. Horrekin batera, ordea, ezagutza berriak sortzeko kideon arteko talka ideologiko eta desadostasunak mahaigaineratzea ere beharrezkoa da. Besteen iritziak entzun, ulertu eta elkar interpelatzeak kontraesanetan sakontzeko aukera ematen du; eta, beraz, proposatutako metodologiek hori bera ahalbideratzeko beharra azpimarratu genuen.

Dena den, talde giro atsegina ez zapuzteko, hainbat unetan gai edo iritzi batzuekiko haserreak, ezinegonak eta desadostasunak albo batera uzteko joera gailendu zela nabaritu genuen. Horren adibide, talde handiko gogoe-tetan ikuspegi ezberdinen arteko desadostasun gutxi azaleratu izana.

«Hori horrela izanik, aurrera begira talde kohesio eta giro atseginarene gaia problematizatu beharrene aurrean aurkitzen garel ondoioztatu zen. Zeintzuk dira taldea gidatzen duten arau esplizitu eta inplizituak? Zergatik dira horiek? Beharbada, haserretzeko eta desadostasunak agertzeko eskubidea esplizituki kurtso hasieratik adierazteaz gain, debate eta ikuspegi ezberdinak elkarren artean dialogatzen jartzeko neurri zehatzak ere planteatu beharko ditugu.» (1. edizioa, sistematizazioa)

Esperimentazioa eta bizipenak abiapuntu, arriskuak arrisku

Ikastaroa Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategiaren markoan jaio zen, eta, hain zuzen, laborategia esperimentazio-gune moduan bizi dugu; sormena ireki eta egiteko modu ezberdinak eta anitzak probatzeko gunea da. Horregatik, guretzat ere esperimentua izan zen ikastaroa. Urterik urtera, egiteko modu zurrunetatik urrunduz, metodologiak berritu eta laborategi bilakatu genuen; esperimentatu, sormena aktibatu eta *harrikadak* egin ahal izan genituen. Lantalde batzuetan ongi ikus zitekeen hori: *«gure taldean, sortze-prozesu*

oso interesgarria gertatu da, gure egiteko modua sortu dugu, inplikazio eta motibazioan eragin du, eta gogoetara heltzeko modu bat izan da» (3. edizioa, partaideak).

Horrez gain, bizipenetan oinarritutako ikastaroa ere izan zen gurea; esperientzietan eta praktiketean oinarritzen zena, eta, horrek, partaideengan arrastoa utzi zuen. *«Esperientzia hau bizipenetan eta gorputzetan izan dugu eta orain gure bidean goaz, modu honetan egitea posible dela jakinda eta hori erakitzea», «Bizi izan dugunez badakigulako egin ahal dela.» (3. edizioa, BPP).*

Are gehiago, gogoetak norberak bizi izandako praktika batetik edota praktika konkretu bat esperimentatuzetik abiatzea sekula landu gabeko kontua zela adierazi zuten kide batzuek lehenengo edizioan.

«Gogoetan sakontzerako orduan hainbat diskurtso arrazionalki oso barneratuta izaten ditugu, baina hausnartzen ari garen horrek praktikan zer eta nola eragiten digun ez dugu horren argi izaten. Gogoeta egiteko modu honek bi eremu horiek elkarrekin lantzea behartzen gaitu, topikoetatik urrunduz eta gai ezberdinetara begirada anitzetatik hurbiltzeko aukera emanez.» (1. edizioa, sistematizazioa)



Eta, hain justu, norbere esperientzia, bizipenak eta praktikak ezagutzaiturri gisa hartzea zen ikastaroak proposatzen zuen lan egiteko modu *bibentziala*. Horrek, formakuntza-prozesuetan ohituta ez gauden *prestutasuna* eskatzen zuen, horrela lan egitean norberaren kontraesanak edota minak kideen aurrean ikusgai geratzen zirelako; edota gogoetak erraietaraino iritsitezkeelako. Formakuntza politikoa egiteko modu hori zaila eta deserosoa suerta daiteke sarri, eta, deserosotasuna sortzailea eta emankorra bada ere, sostengatzeko ahalmen indibidual eta kolektibo sendoa eskatzen du.

Zentzu horretan, edizio bat baino gehiagotan agertu ziren zalantzak eta beldurrak lan egiteko moduaren inguruan. Izan ere, gizarteko joera indibidualisten eraginez akaso, norbera bere zaurietan zentratzeko arriskua ere izan dezake metodologia honek. Nor berean larregi tematu, eta zauri ezberdinen arteko loturak politizatzea eta horiek eraldatze-bidean jartzea bigarren mailako zeregin gisa uzteko arriskua, alegia.

Bizipenak izan ziren lantaldeetan egin genituen lanak ere. Ikastaroak esperimentatuz ikasteko aukera ematen zuen eta lantaldeetan bizi izan genituen maila teorikoan landu eta eztabaidatutako hainbat desoreka zein gatazka; eta, horiek lantzeak, politikoki ikasteko aukera ireki zigun. Hala ere, lantaldeetan gertatutako gatazkei ez genien ikastaroko lanketa zentrolean tarterik eskaini orokorrean; horra hor hurrengoetarako gure erronketako bat.

Esperimentazioan eta bizipenetan oinarritutako ikastaroa egiteko ahaleginean *metodologismoan* erortzeko arriskuarekin kontuz ibili behar izan genuen. Batzuetan dinamikak jartzen genituen zentroan, edukia bigarren plano batean geratzeko arriskuarekin; eta, dinamikak edukietara egokitu behar dira, bestela batzuetan zergatik egiten dugun ere ez ulertzea gerta dakiguke. Horrela, hirugarren edizioan BPPtik azpimarratu genuen metodologia tresna gisa ulertzea zela garrantzitsua; edukietara iristea erraztuko digun bide gisa planteatu behar genuela.

«Metodologiak gogoeta prozesuak benetan kolektiboak eta parte-hartzaileak izatea ahalbidetzen duten tresna ezberdinez osatutako bideak dira. Bideak ere

helburu izan behar duela argi badugu ere, maiz, metodologia edo dinamika zehatzek gehiegizko zentraltasuna hartu zuten eta orduan berdin arteko hausnarketa kolektiboa sustatu baino taldea lar erregulatu eta zurrundu zuten eztabaidak sortzea ekiditeraino.» (1. edizioa, sistematizazioa)

Sarritan, metodologiek eta programatutakoak garrantzia handiago hartu zuten, momentuan taldean sortzen ziren interes eta sormen-kolektibo uneek baino. Dena den, horren inguruan iritzi kontrajarriak izan genituen; batetik, sormen-kolektibo momentuetara iristean denbora gehiago eskaini eta horri etekin handiena ateratzearen aldeko ziren zenbait; eta, bestetik, gogoeta zeregina zuen taldeak egin zuen lanari garrantzia aitortuz prestatuta zegoena bere horretan egiteko beharra azpimarratzen zuten beste zenbaitek.

Era batera zein bestera, horrenbeste militante metodologia ezberdinekin esperimendatzen eta trebatzen aritzea, jauzi bat izan zen; eta lan egiteko moduekiko barne-tentsio handia horren isla izan zitekeen. Modu horiekiko taldean zegoen gosearen eta eskarmentu-faltaren seinale ere bai behar bada.

Momentu informalak

Momentu informalen helburua herri-mugimenduek elkar ezagutuz ezaten bideak irekitzea zen. Atsedendietan zein jatorduetan partaideen artean elkarren esperientziak konpartitzeko ohitura sortu zen, bakoitza bere kolektiboan edo militantzian bizitako esperientzietatik arituz. Bestalde, talde kohesiorako eta konfiantzazko espazioak sortzeko larunbat gauetako denbora libreek zein gaubelek izan zuten garrantzia ere aipagarria izan zen taldeko kide askorentzat.

Herri-mugimenduetan pil-pilean zeuden gaiak, eztabaidak edota kalean gertatzen ari zirenak gehienbat momentu informaletan komentatzen ziren. Une eta gune horietan eztabaidatu, konpartitu eta trukatu ziren ikuspegiak gai horien inguruan. Agian gaitegian txertatzen jakin ez genuelako atera

ziren gai horiek espazio informaletan; edo gaurkotasan handiko gaietarako espazioa hark izan behar zuelako, akaso.



Elkarbizitza, talde-lana, giroa

Elkarbizitzak dakartzan tentsio, hurbilpen eta poz guztiekin, ikastaroaren elkarbizitza-formatuak herri-mugimenduetako jendeak elkar sakonago eta alderdi askotatik ezagutzeko aukera ematen zuen. «Asteburu batetik bestera harremanak garatzen joan dira, talde-izaera lortu dugu eta beldur eszenikoari aurre egin diogu: indartu gara» (3. edizioa, partaideak). Taldeko elkarbizitzak asteburu batzuetan zehar taldea bera egiten du eta partaide batzuek baloratu zuten «inork inoiz ez digula erakutsi zer den taldean jardutea eta esperientzia honetatik ikasi dugula» (3. edizioa, partaideak).

Ikasturte bukaerako balorazioetan ia urtero baloratu zen ikastaroa emozio-nalki gogorra eta potentea zela, hainbat beldurri edota zailtasuni aurre egiteko espazio ere izan zelako. Adibidez, taldearen aurrean jarri eta dinamizatzea, askori zaila egiten zitzaien zerbait zen, eta horretan trebatzeko

aukera ematen zuen ikastaroak. Lotsaz eta hanka sartzeko beldurrez, baina egitera animatu, eta, partaide batzuek, egin egin zuten zeregin hori. Beste batzuek beraien militantzia esperientzietan kideen arteko kontaktu fisikorik ez zuten inoiz bizi izan ordura arte; eta, ikastaroan, ohikoak ez zitzaizkien kodeetan sozializatzea, eta dinamika batzuetako kontaktu fisikoarekin eroso sentitzea, lana izan zen haientzat. Norbera bere zailtasun eta beldurrekin topatu zen, eta bakoitzarentzat ezberdina izan zen hazte-prozesua; nahiko sententzia konpartitua izan zen, ordea, hazkuntza hori handia izan zela.

Balorazioetan aipatutako beste emozioetako batzuk hasierako urduritasuna, ezjakintasuna eta ziurgabetasuna izan ziren; denborarekin, talde-giro atsegin eta gertukoa indartzean, lausotzen joan zirenak.

«Dena den, prozesua ez zen lineala izan. Ibilbide honetan zehar elementu ugari elkar-eragin dute eta une batzuetan, praktika kolektibo eredugarria asko hurbildu baginen ere, hainbat funtzionamendu modu eta joera kolektibo oraindik ere lantzeko eta birpentsatzeko ditugula azpimarratu behar da.» (1. edizioa, sistematizazioa)

Birpentsatzeko behar horren adierazle izan zen talde-barneko botere-harreman desorekatuak eta gatazkak ikusarazi zirenean kosta egin zitzaigula horiek kudeatzea. Izan ere, lehen edizioko ikasturte erdialdera, talde handian botere-harreman desorekatuak gertatzen ari zirela ikusarazi zuten kide batzuek dinamika batean; eta horiek jakintza-maila ezberdinekin eta talde handian parte-hartzeko moduekin lotzen ziren, batez ere. Botere harreman desorekatuen gaia aipatzen hasi eta hurrengo saioetan, kideren bat edo beste taldearekiko itxiago egon zen; nahiz eta orokorrean talde-giro atsegina gailendu, elkarrekin berriz konektatzea kosta egin zitzaigun. Gertatutakoari erreparatu genionean, kide batzuen ustez gaia lantzeko zailtasunak ez ziren egon botere-edo zapalkuntza-dinamikekin lotuta, talde-giro atsegina ez zapuztearekin baizik.

Egoera haren aurrean ustez *asko* hitz egiten zuten zenbait kidek talde handian gutxiago hitz egiteko hautua egin zuten. Dena den, neurri hori bere horre-

tan ez zen egoerari buelta emateko nahikoa izan, eta, ondorioztatu genuen, hainbat funtzionamendu eta joera kolektibo landu gabe geratu zitzaizkigula. Hona hemen, lehen edizioaren sistematizazio-lanean, gertaera haren harira egindako gogoetaren ostean ehundu genituen hainbat hari-mutur:

- Norberaren eta besteen pertzepzioaren arteko kontraesanak. Talde guztiak formakuntza-esperientzia ez duela berdin bizi konturatzekeo beharra. Askotan uste dugu norbere bizipenak unibertsalak direla.
- Geure buruei botere-harremanei buruzko galderak egiten hastearen garrantzia. Kide batzuen praktikek beste batzuk zapal ditzaketela konturatzea ez da erraza, baina ez dago praktika horiei buelta ematerik gaia modu indibidual zein kolektiboan lantzen hasi gabe.
- Taldean emozioak lantzeko zailtasunak eta horrelakoak gertatzean izaten dugun noraez sentazioa. Galduta gabiltzan sentipena izan ohi dugu eta ez dugu jakiten gaiari nola heldu. Gatazka baten ostean, berau *ixteko* lanketa egokia egiten jakitea ikasi beharreko zerbait da. Horretarako tresnak behar ditugu.
- Taldean bizi ditugun minak kolektiboak direla ulertzea, eta min horiek konpartitzeko eta kolektibizatzekeo beharra. Norbanakoari gertatzen ari zaionari buruzko zentzu kolektiboa izatea beharrezkoa da; izan ere, sarri, prozesu kolektiboetan agertzen diren zailtasunek beldurrekin, gaitzespenekin eta zapalkuntza-harremanekin dute erlazioa.
- *Zapalkuntzen* edota bizi ditugun gutxiespen-egoeren inguruko debatarei ere heltzeko beharra. Zer da zapalkuntza? Botere desoreka guztiak al dira zapalkuntzak? Taldean txiki sentitzea edo hitza ez hartzea, adibidez, noren ardura da? Zenbateraino eragiten du horretan talde funtzionamendu desorekatuak? Eta kidearen konplexu eta ahalduntze faltak?

Elkarbizitzan sortutako beste kezketako bat, kasu honetan BPPan ere landu genuena, ikastaroko elkarbizitza-dinamikaren eta alkoholaren

inguruko eztabaida izan zen; lehenengo edizioan zenbait kidek adierazi baitzuten gauetako alkohol kontsumoak eguneko jarduerak baldintzatu zituela. Horren aurrean, bigarren urteari begira zera erabaki zen: berriro egoera bera errepikatuko balitz, ikastaroan bertan gaiaren inguruko gogoeta luzatzea, ikastaroarekiko norbere ardura gisa eta auto-erregulazio gisa planteatuz; egoeraren arabera *aisia eta kontsumoa* eztabaidaraino irekiz gogoeta. Horrez gain, gauetan deskantsatu nahi zuten kideek lehen-tasuna izango zutela ere erabaki zen, hori guztia zaintzea ardura kolektiboa izanez. Hurrengo bi ikasturteetan ez zen lehenengoan gertatu zena errepikatu, ordea.

Denbora

Asteburuetako denbora kudeatzeko zailtasuna edizio guztietan presente egon zen zerbait izan zen. Gaiak landu nahi ziren, edukietan sakondu, dinamika praktikoa gehiago egin, aisialdirako eta elkar ezagutzeko tarte gehiago izan, auzolanerako tarte hartu eta momentu informal gehiago izan. Asteburu batek, ordea, ez zuen denborarik ematen hori guztia egiteko, eta, beraz, asteburuetako denborak eta tarteak ahalik eta beteen egon zitezen saiatzen ginen, asteburuari ahalik eta zuku gehien ateratzeko. Zentzu horretan, asteburuak beteegi zeudela baloratu zen urtero, kaka egiteko ere denborarik ez zegoela, ezta norberarentzako beharrezkoa izan zitekeen tarterik hartzeko ere; guztia bermatzerik ba ote zegoen, ordea?

Urtero presente egon ziren bi norabide horietan zihozten balorazioak gai honi dagokionez, kontraesanean; ez genuen adostasun kolektiborik izan gai honetan ere. Bost asteburutan guztia egin nahi izatea, eta, aldi berean, denboraz lasai ibiltzea ezinezkoa zela izan zen ondorio nagusia. Bataren eta bestearen artean lehen-tasunak markatu genituen, ordea, eta, asteburuak bete, eta egin nahi genuen guztia egin ahal izateari eman genion lehen-tasuna, asteburu potenteak izango zirela jakitun ginen arren.

Kontraesan hori herri-mugimenduetako eguneroko jardunean izan ohi dugun bera da. Bizi-erritmo askatzaileago batzuk aldarrikatzen ditugu,

baina sarri arrapaladan militatzen dugu. Ikastaroa ere, beraz, egunero bizi ditugun kontraesan eta ezintasun horien isla izan zen.

Denboraren gaiarekin amaitzeko, aipatu beharra dago, lehenengo edizioan batez ere, puntualtasuna ez zela ikastaroko indarguneetako bat izan. Hasierako asteburuetan zehaztutako ia gutzia programatutako moduan burutu arren, ikastaroak aurrera egin ahala ordutegiak betetzea lasaituz joan zen. Horrek, dinamikak eta ekintzak egiteko denbora murrizteaz gain, denbora kontrolatzea kide gutxi batzuegan delegatzea ekarri zuen. Horrela, guztion ardura beharko lukeena, unean uneko ekintzak prestatu eta dinamizatu behar zituzten kideen gain geratu zen. Denbora zaintzea ardura kolektiboa izan beharko litzatekeela eta, baloratu genuen hurrengo kurtsoei begira, ardura kolektibo hori hobeto kudeatzeko neurri berriak zehaztu beharra zegoela. Horri erantzuteko, bigarren ediziotik aurrera asteburuko ordutegiak bete zitezten ziurtatzea lantaldeen artean txandakatzen ziren zereginetako bati gehitu zitzaion: azpiegitura eta goxotasuna zereginari.

Espazioak

Gure hautu politikoa izan zen ahalik eta astebururik gehien zein lantaldeetako bilerarik gehien herri-mugimenduen espazioetan egitea. Horrela, gainera, asteburua pasatzen genuen tokiko proiektuak ezagutzeko aukera izaten genuen bertako kideen eskutik. Horietako batzuetan, gainera, auzolanetan parte-hartzeko aukera ere izan genuen. Besteak beste Garaion, Astra, Errekaleor, Ziordiako Amarauna proiektua zein Goñiko Euskal Udalekuak ezagutu genituen, beste hainbat proiektu eta espazioekin batera.

Aurrez aurreko saio gehienak leku itxietan egin genituenez, *naturarekin* lotura gehiago izan nahi genuela balioetsi genuen, asteburuetan presentzia gehiago izan zezan; baina horretarako nahia egon arren, zaila egin zitzaigun lotura hori indartzea.



ERRONKAK ETA IKASITAKOAK

Formakuntza-momentu presentzialen inguruko balorazio eta gogoetetatik lagungarriak izan daitezken ondorengo gakoak atera ditugu:

- Dena da momentu pedagogikoa. Ikastaroa aurrera ateratzeko beharrezkoak ziren zereginetan, gaitegia lantzeko saioetan, gaubeletan, jatorduetan zein ikastaroko egunerokotasunean, une guztietan ari gara hezten; eragiten ari zaigu eta, aldi berean, eragiten ari gara. Beraz, ezinbestekoa da horietan guztietan ditugun jarrerak, zein horiek gauzatu eta antolatzeko moduak politikoki eta kontzientziaz erabakitzea eta zaintzea.
- Partaideen inplikazio-maila ezberdinek ikastaroan lekua izatea garrantzitsua da, beti ere beharrezko izanik gutxieneko dedikazio-maila bat izatea.

- Parte-hartzeko modu ezberdinak haintzat hartu behar dira: hitza zein ahotsa erabiltzea, dinamiketan gorputza jartzea, behatzaile rola hartzea edota isilean entzutea.
- Kideen arteko talka ideologikoak eta desadostasunak mahaigaineratzeko bitartekoak jartzea beharrezkoa da, elkar interpelatzeak kontraesantetan sakontzeko eta ezagutza berriak sortzeko aukera ematen duelako.
- Aberasgarria da metodologiekin esperimentatuz eta bizipenetan oinarritutako bideak erabiliz sakontzea edukietan.
- Ikastaroan bertan gertatzen diren desorekak eta gatazkak lantzeak politiko-pedagogikoki ikasteko aukera ematen du.
- Elkarbizitza-formatuak herri-mugimenduetako kideek elkar, zein mugimendua bera, sakonago eta alderdi askotatik ezagutzeko aukera ematen du; eta harremanak sendotzen laguntzen du.
- Talde-giro atsegin eta gertukoa izateak maila emozionalean bizitzen ari garena konpartitzea errazten du.
- Ikastaroa jendartean kokatuta dagoenez, herri-mugimenduetan ditugun kontraesan eta ezintasunak islatzea saihetsezina da, neurri handi batean.

3.5 Formakuntza-momentu ez-presentzialak

Aurretik aipatu dugun moduan, formakuntza-momentu ez-presentzial deitzen genion asteburu batetik bestera generaman jardunari, zehazki, lantaldeetako bilerei eta onlineko plataforman egindakoari.

Hain zuzen ere, ikastaroaren prestaketa fasean hainbat eragilerekin izandako elkarriketetan behin eta berriz atera zen, beharrezkoa zela bitartekoren bat sortzea asteburutik asteburura haria ez galtzeko eta formakuntza-lan

pertsonala sustatzeko. Behar horretatik abiatuta, parte-hartzeko aukerak eta intentsitate desberdinak ahalbidetuko zituen tresna bat sortu genuen: onlineko moodle plataforma bat. Horrek, modu jarraian edo puntualean iritziak trukatzeko, informazioa sozializatzeko edota edukietan sakontzeko gune birtual izatea zuen helburu.

Aurrez aurreko saioen aurretik eta ostean hausnarketa eta lanketa pertsonalerako tartea hartzea erraztuko lukeen tresna izan nahi zuen. Bertan bilduta zeuden gaitegiarekin lotutako irakurgai, ikus-entzunezko eta etxerako lan proposamenak, bakoitzaren bitakora koaderno osatzeko lekua eta hainbat foro.

Moodle plataforma horrek hiru edizioetan zehar aldaketak izan zituen, ikasturte bakoitzaren osteko balorazioetatik abiatuta egin genituenak. Erabili ez genituen atalak kendu, berriak jarri eta bestelako hainbat moldaketa egin genituen, hain zuzen, partaideentzat erakargarriago eta erabilgarriago izan zedin.

8. taula. Momentu ez-presentzialetarako bitartekoak

1. EDIZIOA

DOKUMENTAZIOA

- **Irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak.** Oinarri batekin joateko saioetara. Asteburu bakoitzerako 10-15 dokumentu, norberak interesgarri zizaizkionak irakurtzeko.
- **Ariketa proposamenak.** Asteburuaren aurretik/ondoren egiteko. Atariko asteburuan BPPak, ondoren gogoeta lantaldeak proposatuak.
- **Asteburuko ibilbide metodologikoa, materialak eta ariketak.** Gogoeta lantaldeak igotzeko. (Kurtso hasieran ez zen argitu BPPan eta talde bakarrak igo zituen.)

FOROAK

- **Lantalde bakoitzaren foroa.** Barne-komunikaziorako eta ezta-baidarako. (Lantalde bakoitzak barne komunikaziorako bide propioa zehaztu zuen, eta horrela interesgarriagoa zela baloratu genuen.)
-

- **Foro zabala.** Asteburuko gogoetetan sakontzeko.

BITAKORA KOADERNOA

- Koaderno fisikoa, ikastaroko norbere egunerokoa/asterokoa. Alderdi autodidakta eta erreflexiboa lantzeko. Zer ikasi dut? Nola sentitu naiz? Zer gertatu da taldean?...
-

2. EDIZIOA

DOKUMENTAZIOA

- **Irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak.** Material gutxiago, jendea galdu egiten zela baloratu baikenuen. Asteburu bakoitzerako 2-3 dokumentu derrigorrez irakurtzeko eta beste batzuk aukeran.
- **Ikastaroaren gida.** Ikastaroa ulertzeko informazio argia eta eskuragarria.

FOROAK

- **Ikastaroari buruzko foroak.** Oharrak emateko (hitzorduak, lekuak, jarduerak noiz/nola egin...)
- **Jardueren foroak.** Asteburuaren aurreko/ondorengo jarduerak egiteko eta galdera eta kezka partekatzeko, gogoeta kolektiboetan sakontzen jarraituz. Lantaldeek honako bi dokumentu hauek igo behar zituzten:
 - **Itzulera dokumentua:** dinamiken azalpenak, ibilbide metodologikoa, saioetako-aktak, sortutako tresnak, debateen laburpenak. Gogoeta lantaldeak igotzekoa.
 - **Sistematizazio txostena:** sistematizazio-ardatzaren inguruko hausnarketa eta proposamenak, sakontzeko galderak. Sistematizazio lantaldeak igotzekoa.
- **Kontu-kontari foroak.** Hartu-eman informaletarako.

NIRE MOTXILA (BITAKORA KOADERNOAREN ORDEZ PLANTEATU ZEN)

- Norberak soilik sartzeko aukera zuen Moodle barruko txokoa: edukien sintesirako (ideiak, gogoetak eta zalantzak) zein egoera eta sentipenak jasotzeko.
-

3. EDIZIOA

DOKUMENTAZIOA

- **Irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak.** Bigarren ediziokoa mantendu zen.
- **Ikastaroaren gida.** Ikastaroa ulertzeko informazio argia eta eskuragarria.

FOROAK (2. edizioan bakoitza zertarako zen ez zen argi geratu eta erabilerak nahastu ziren, horregatik, bi foro izatera itzuli ginen.)

- **Gogoeta foroa.** Asteburuetako debateekin jarraitzeko eta gai berriak plazaratzeko. Lantaldeek honako bi dokumentu hauek igo behar zituzten:
 - **Itzulera dokumentua:** dinamiken azalpenak, ibilbide metodologikoa, saioretako-aktak, sortutako tresnak, debateen laburpenak. Gogoeta lantaldeak igotzekoa.
 - **Sistematizazio txostena:** sistematizazio-ardatzaren inguruko hausnarketa eta proposamenak, sakontzeko galderak. Sistematizazio lantaldeak igotzekoa.
- **Kontu-kontari foroa.** Kolektiboetako ekimenak, herri-mugimenduen deialdiak...

NORBERE HAUSNARKETA eta ikasitakoak jasotzeko gunea kendu egin zen, aurreko bi edizioetan ez zelako erabili izan.

Iturria: Joxemi Zumalabe Fundazioa

BALORAZIOA

Etixerako lanek asteburuetera begira zentratuta etortzeko aukera ematen zutela eta horiek egiteak parte-hartze mailan eta gogoeten sakontasunean eragiten zutela baloratu zen, baina benetan baliatu al genituen?

«Ikastaroaren koordinazioak bitarteko ezberdinak diseinatu zituen hausnarketa eta lanketa pertsonala garatzea errazteko (Bitakora, etxerako lanak, Moodle plataforma...). Dena den, eremu honek ez du eman ematea espero zena». (1. edizioa, sistematizazioa)

Lan ez-presentzial hori ikastaroko alderik ahulena izan zen eta asmatu ez izanaren sentsazioa eduki genuen. Nahiz eta edizio batetik bestera erabileraz errazteko eta hobetzeko aldaketak egin, praktikan formakuntzaren alderdi horrek ez zuen funtzionatu. Ikasturtez ikasturte errepikatu zen indartsu hasi baina ahultzeko joera, asteburu osteko hausnarketa eta lanketa pertsonalak gutxitzen zihoazelarik ikastaroak aurrera egin ahala.

«Aurten iaz baino hobeto joan da, batzuek irakurgaiak irakurri dituzte eta etxekolanei leku bat eman zaie asteburuetan, hori indartzeko edo azpitaldeetan ere... Moodlek hasieran funtzionatu zuen (lehenengo pare bat asteburuetan) gero ya ez» (2. edizioa, BPP)

Izen ezberdinak erabiltzeak egitekoak beste nolabait ulertzea edo ikustea ekar zezakeela sinestuta, egiteko ez-presentzialei izendapen berriak proposatu genizkien: *etxerako lanen ordez jarduera autodidakta*, edota *elikadura momentua*. Baina izen batzuk aldatu bagenituen ere, horrek ez zuen aldaketa praktikorik eragin. Norbere bitakorak, adibidez, ikastaroan zehar bizi izandakoak, sentitutakoak eta gogoetak jasoko dituen eguneroko edo asterokoa izan nahi zuenak, ez zuen arrakastarik izan, izenez aldatu arren; *Bitakora koadernotik Nire motxilara*. Ez bata ez bestea ez zirela erabili ikusita, hirugarren edizioan, BPPtik behintzat, egiteko hori ez proposatzea erabaki genuen.

Momentu ez-presentzialetako zeregin horietan izandako ahuleziak talka egiten du edukietan gehiago sakontzeko egondako edo sentitutako eskaerarekin. Asteburuetatik at gaiak lantzen eta sakontzen jarraitzeak eskatzen zituen jarrera, prestutasuna edota baldintzak ez ziren egon partaide gehien aldetik. Horrek, formakuntza osatzen zuten aurrez aurreko eta bestelako momentuen artean, momentu presentzialen aldeko desoreka areagotzen zuen.

Moodlera sartzea kosta egiten da

Lehen bi edizioetan saiakerak egin ziren jendeak parte har zezan, baina ez zenez guztiz lortu hirugarrenean etsipen puntu bat egon zen alderdi

honekiko, ez zitzaion hainbesteko zentraltasunik eman eta alde batera geratu zen. Tresna gisa bere potentzialtasuna baloratzen genuen, tresna interesgarria izan ziteekela, baina erabileraren inguruan izan genituen zalantzak: akaso email bat erabiltzea ez al litzateke errazagoa? Izan ere, errealitatea izan zen partaide batzuk azken asteburura arte ez zirela sartu ere egin plataformara.

«Moodlera sartzeko aitzakia gehiago sortu behar dira. Modu malgu batean, jendea bertara sartzera “behartu” behar da. Gehigarri gisa planteatzen jarraitzen bada ez da erabiliko» (1. edizioa, BPP).

Aitzakia horietan pentsatuz plataforman trebatzeko hainbat jarduera proposatu genituen: bakoitzak bere profila osatzea, foroan azaltzea ikastaroan zergatik hartzen zuen parte... Eztabaidarako gune izan zedin ere zenbait neurri jarri genituen: unean uneko gaiak proposatuz, asteburuetan ateratako gai konkretuen inguruan galdetuz edo eztabaida piztuz... Dena den, horiek bizi mantendu zitezten erakargarriak izan behar zuten, eta, ikusi genuen, BPPko kideon lana izan behar zuela zirikatzeak eta eztabaida pizteak.

Hori horrela ondorioztatu bagenuen ere, geuri ere kostatzen zaitzagun Moodlera sartzea, eta taldeko pertsona zehatz eta gutxiren gain geratu zen plataformari bizia emateko ardura hori, BPPko kideon artean desorekak eraginez.

Etixerako lanen gora-beherak

«Ikastaroan parte hartuko duen pertsonen profil orokorra kontutan izanik (saltsa askotan dabilen jendea, ikastaroari eskaintzeko denbora “gutxi” duena...), bitartekoak ahalik eta konprimatu eta zehaztuen ematea (zehazki zer egin behar den, noizko, nola...) garrantzitsua da». (1. edizioa, BPP)

Eginbeharreko zehatz edota minimo batzuk markatzeko beharra behin baino gehiagotan atera zen ikasturte bukaeretako balorazioetan. Hala, ikastaroan zehar denok bete beharreko *mugarriak* argi markatzea proposatu zen lehenengo ikasturtearen ostean. Bigarrenean ere aipatu zen etxerako lanen

egutegi bat egiteko, bi asterik behin egin beharren bat markatzea (lantaldeko lanak, irakurgaiak eta foroan parte-hartzea). Dena den, azkenean ez genuen horrelakorik praktikan jarri.

Batez ere gogoeta zeregina zegokienean eman izan zioten taldeek erabilera gehien Moodle plataformari, eta, orduantxe egin zituzten baita etxerako lan gehien, balorazioek erakutsi dutenez.

Etxerako lanen jarraipena egiteko moduen artean hainbat aukera jarri genituen mahai gainean. Horietako batzuk baztertu egin genituen; etxerako lanak egin eta norbaiti bidali, eta, aldi berean, norbaitenak jasotzea esaterako. Eta, aldiz, beste batzuekin aurrera egitea erabaki genuen; adibidez, asteburuan bertan aurretik egindako etxerako lanak lantzeko tartea egotearekin eta jarraipena lantalde bakoitzeko BBPko kideek egitearekin.

Hirugarren edizioan lehenengo urtean baztertutako ideia bat berrartu genuen: asteburuaren aurretik talde txikietan irakurgaiak lantzea; horrela, lantaldean aurre-debateak izan eta asteburura beste modu batean iristeko, kokatuago, oinarri batekin. Ikusi genuen talde txikietan etxerako lanak egitea ikastaroari zuku gehiago ateratzeko bitarteko aproposa zela.


Ziklo guztian zehar azpimarratu zen behin eta berriz asteburuetan etxerako lanei erreferentzia egitearen garrantzia; lan ez-presentzialak lekua har zezan, lan presentziala eta ez-presentziala hobeto uztartu behar zirela. Izan ere, partaide batzuek ez zuten loturarik aurkitzen proposatutako irakurketen eta asteburuan landutakoaren artean, lotura zuzenik ez behintzat. Beste batzuentzat, aldiz, dinamika eta testuen arteko loturak hain esplizituak ez izatea positiboa zen, askotan testuak zuzenean lantzerako ohituegiak baikaude. Azkeneko edizioaren ostean BPPTik baloratu genuen agian ez genuela asmatu irakurgaien eta asteburuaren arteko loturak egiten; baina, asteburua ere ez litzatekeela irakurgaien arabera antolatu behar, azken batean, irakurgaien helburua oinarri komun bat eskaintzea baitzen, bermatzea partaide guztiak oinarri minimo batekin iritsiko zirela asteburura.

ERRONKAK ETA IKASITAKOAK

Formakuntza-momentu ez-presentzialen inguruko balorazio eta gogoetetik lagungarriak izan daitezken ondorengo gakoak atera ditugu:

- Partaideek egin zuten plataformaren erabilera BPPTik eskainitako energia eta elikatze-mailaren arabera izan zen.
- Plataformen erabilera indartzeko erakargarri egin behar ditugu, bertara sartzeko *beharrak* sortu eta eztabaidetan parte-hartzera zirikatu.
- Etxerako lanak partaideen errealitate eta aukeretara egokitzen ahalegindu behar da.
- Partaide guztiek egin beharreko jarduera minimo edo mugarriak zehaztea lagungarria da.
- Bakarrik egin beharrean, etxerako lanak eta irakurgaiak lantzeko tartek lantaldeka edo taldetxoka hartzeak lagundu eta erraztu egiten du momentu ez-presentzialetako lana.
- Formakuntzaren alde presentzialak eta ez-presentzialak lotura izan behar dute, eta garrantzitsua da aurrez aurreko saioetan erreferentzia egitea etxerako lanei.
- Etxerako lanak egoteak eta egiteak asteburueta kokatuta iristen laguntzen du, lanketa presentzialak aberasten ditu eta sakontzeko aukera ematen du.

Pil-piloen
GAINA (K) HERRA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA

Biltzaerako
Erraztasun
materialak

ondoa
en

4. ONDORIO GISA

Azken lerro hauetan ikastarotik ateratako hainbat ondorio agertuko dizkizuegu, modu xumean. Hiru edizioak bizi ondoren, eta aurreko orrialdeetan azaldutako balorazioak eta ikasitakoak kontuan izanik, hasieran finkatutako helburu orokorrei begiratu nahiko genieke berriz; nola eta noraino iritsi garen neurtu eta elkarrekin konpartitzeko.

Helburu orokor horiek, ikasturte batean zehar lortu beharrekoak baino, proiektuaren oinarriak eta iparra markatzen zituzten iparrorratzak zirela ulertzen dugu, norabidea uneoro presente izaten lagundu zigutenak.

1. HELBURUA. Herri-mugimenduak sartzeko, elkar ezagutzeko eta esperientzia-trukea bultzatzeko espazioa izatea. Mugimenduen eragiteko ahalmena zein jakintzak sortzeko gaitasuna hobetzea ipar izanik, herri-jakintza teoriko eta praktikoak iturri izango zituen formakuntza-eredu askatzaile baten bidean urratsak eginez.

Helburu hori lortzeko bidean (baina ez horregatik bakarrik) hartutako erabakietako bat izan zen ikastaroak elkarbizitza-formatua izan zezala. Asteburu osoak elkarrekin pasatzea zekarren horrek, eta, lan-saio hutsez osatutako ikastaroen aldean, elkarrekin konpartitzeko zeregin eta momentu gehiago izatea baita (harrikoak, lo egitea, dutxak, gaubelak, iluntzeko tertuliak...). Une horiek elkar ezagutzea eta norbere esperientziak trukatzeko errazten eta elikatzen zuten. Herri-mugimenduetako kidez osatutako ikastaroa izanik, bakoitzak geure kolektibotik hitz egiten eta partekatzen genuen; norbere taldeetan bizitzen ari ginena konpartituz, eta elkarrekin bizitako momentu horiek asko lagundu zuten helburua lantzen.

Hala ere, urtero baloratu izan zen proiektu asko ezin izan genituela nahi beste ezagutu, motz geratu zitzaigula bakoitzaren eguneroko praktiken berri izateko aukera. Denbora mugatua zenez, aukeratu egin behar izan genuen non jarri fokua, eta, elkarren berri ondo izatea, sakontzeke gera-

tutako zerbait izan zen. Bide horretan, Moodle plataforma elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko baliagarri izan zitekeen tresna zela ikusi genuen lehenengo edizioaren bukaeran, tamalez, ez genuen asmatu izan zezakeen etekin guztia ateratzen.

Ikastaroa egiten ari ginen kideen arteko elkartrukeaz gain, aurrez aurreko formakuntza saioak egin genituen lekuak eta haietan zeuden proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera ere izan genuen. Hori aberatsa izan dela baloratu zen edizio guztietan.



Elkar ezagutu eta esperientziak trukatu genituen, mugimenduak sartzeko ahaleginean pausu garrantzitsuak emanaz. Inondik inora ez zen gure helburua hori ikastaro bakarrean lortu nahi izatea, izan ere, mugimenduen arteko saretzea ikastaroaren norabide gisa ulertzen genuen. Hirugarren edizio bukaerako balorazioetan, sareak indartzeko balio zezakeen proposamen bat atera zen: «*elkarlana asteburuetatik atera, gure herrietara eraman eta hurrengo asteburuan esperientzia partekatzea*» (3. edizioa, partaideak).

Zentzu horretan, behin ikastaroa bukatuta, partaide ugariak aipatu izan dute ikastaroan sortutako harreman-saretik *tira* dutela kolektiboen arteko ekimen zehatzak antolatzeko zein eskaera edo elkarlan puntualak aurrera eramateko. Beraz, saretze bidean urrats txiki bat eman genuela esan genezake.

Gure nahia, eta ametsa, ikastaroa kolektiboetan eragina izatera heltzea zen. Baina bide horretan, ez genuen asmatu pieza guztiak ongi antolatzen. Ikastarora norbanako gisa apuntatu ziren partaideak, eta, norbanako gisa hartu zuten parte, ez kolektibo baten izenean edo babespean; norbanako gisa aurkezten ginen eta horrela sortu zen *ikastaroko taldea*. Horrela, partaide batzuek ikasturte bukaerako balorazioetan aipatu zuten beraien ez zetoze talde baten izenean, eta, beraz, ikastaroan ikasitakoak talde batera eramatea zein aliantzak eta elkarlana sustatzea ez zegoela beraien esku. Beste batzuk, aldiz, ikasitakoak beraien kolektibora eramateko gogotsu zeuden, baina zailtasunekin egin zuten topo: «*niretzat askagune bat izan da ikastaroa, baina nik ezin ditut tresna hauek nire kolektibora eraman, nire kolektiboko kideak ez baitaude prest hortarako*» (3. edizioa, partaideak).

Ez bada kolektiboaren baitan erabakitzen kide batzuk ikastarora etortzea, horretarako aurre-lanketa bat egin, eta ekarpenak jasotzeko irekitasuna eta prestutasuna izaten, ondoren bertan eragitea zaila dela ondorioztatu dugu.

Horregatik, ikastaroaren berri eman eta izen-ematea zabaltzean aspektu hori azpimarratu beharra dagoela ikasi dugu. Ikastaroa nori zuzentzen zaion zehaztean, herri-mugimenduetako partaideentzat dela aipatuz eta taldearen babesarekin etortzeko beharra azpimarratuz.

2. HELBURUA. Formakuntza politikoa berrezaugarritzea, jakintzaren sorkuntza kolektiboan oinarrituz eta horretatik jardunez. Horretarako, jakintza hainbat ikuspegitik sortzeko bitartekoak jarritz, esperientziei eta praktikei lekua eginez, eta, formakuntza politiko integrala sustatuz, ez soilik transmisio ideologiko-historikoa.

Jakintza sortzea prozesu kolektiboa izan dadin, taldeak egon behar du zentroan. Gure kasuan, hain zuzen, ezagutza-subjektua taldea izan zen, taldearen behar eta interesetatik abiatu zen ikastaroa. Partaideak ez ziren hartzaile hutsak izan, taldeak berak sortu zuen ikastaroa, antolaketarako beharrezkoak ziren zereginak bere gain hartuz eta ezagutzen igorle eta sortzaile izanez.

Taldeak ikastaroa autonomiaz eraman ahal izateko aurrera, dedikazio minimo bat beharrezkoa zen, baina, zoritxarrez, ez ginen iritsi partaide guztien aldetik nahiko genukeen dedikazio-minimo horretara. Hala ere, talde erdiaren baino gehiagoren inplikazioari esker (edizio guztietan egon zena) ikastaroaren ardura kolektibizatzea lortu genuela esan daiteke.

Onartu behar dugu partaide batzuek, hainbat arrazoi medio, ezin izan zutela guk nahiko genukeen adinako inplikaziorik izan, edota ez zeudela horretarako prest. Izan ere, ziur aski ez da errealia kide guztiak inplikazio eta konpromiso-maila berean egotea halako ikastaro batean, herri-mugimenduetako kolektibo eta taldeetan gertatzen den modu berean. Are gehiago, herri-mugimenduetako kideekin egin nahi den formakuntza-prozesu orotan, kide horien bizi- eta militantzia-baldintzetara ondoen egokitzen den formatua bilatzeko saiakera egin beharko litzateke.

Dena den, baldintza horietara moldatzeko izan genuen gaitasuna gorabehera, formakuntza proiektu hura martxan ipini aurretik egindako hasierako diagnostikoan (1. taula) atera zen herri-mugimenduek formakuntzari denbora gehiago eskaintzeko eta hausnarketarako espazioak sortzeko duten zailtasuna, eta, beraz, horrek ere izan zezakeen eragina.

Taldea izan zedin ezagutza-subjektua, BPPak lan egin behar izan zuen bide horretan. Gure ideia zen ikastaroaren atariko asteburua prestatu, dinamizatu eta lantaldeetatik tiratzea, hasieran; baina ikasturtea aurrera zihoan heinean, apurka, zentraltasuna galtzen joan eta lantaldeek prozesu formatiboaren ardura beren gain hartzea. Lantalde batzuetan egoera horretara asko hurbildu ginen, aldiz, beste batzuetan BPParekiko dependentzia, delegazioa edo ardurak esleitzea bizi izan genituen. Beraz, esan dezakegu arlo horretan bizipen ezberdinak izan genituela lantalde batzuetatik besteetara.



Partaide guztiok, lantaldeka antolatuta, asteburu bakoitzean zeregin batzuk aurrera eramateak, ikastaro bat aurrera ateratzeko beharrezkoak diren arlo guztietan trebatzeko aukera eman zigun. Zeregin guztien garrantzia ulertzeko eta horietako bakoitza praktikatzeko bizipena eskaini zigun ikastaroak, zeregin guztiei balio politikoa aitortuz.

Egia da ez genuela ekiditerik lortu gogoeta zereginak besteek baino prestigio gehiago hartzea. Lau arduren artean dedikaziorik handiena eskatzen

zuen zeregina zen, eta, gainera, ikastaroan edukiak *eman* eta *jaso* behar genituela genuen gehienok buruan, horrek zereginetikiko desorekak erreproduzitzera eraman gintuen. Aipatzekoa da baita lantalde batzuk ardura eta konpromiso handiagoz hartzen zutela zeregin hori, eta, aldiz, beste zeregin batzuk ondo egingo zituztela auresuposatuz, lasaiago hartzen zituztela; nahiz eta ardura guztiak izan garrantzitsuak eta beharrezkoak ikastaroa aurrera ateratzeko.

Formakuntza integralera bidean, gogoetak elikatzeaz gain *patxada eta patxanga zereginarekin*, batez ere, maila artistikoan esperimentatzeko aukera ere izan genuen ikastaroan; ipuinak, meditazioak, bideoak, mistikak, dantzak, jolasak, jaiak edota abestiak konpartitu genituen. Horrek, edukiak beste hizkuntza eta kode batzuetatik prestatzea eta lantzea ahalbideratu zigun; arrazoia, hitza edo diskurtsoa erabiltzera soilik mugatu beharrean, adierazpen- eta ezagutza-artistikoa ere jakintza eta hizkuntza direla ulertuz, eta komunikatzeko kanal guztiei arreta jarritz. Hizkuntza horiek taldearen nortasuna eta kohesioa sortzen eta lantzen lagundu ziguten, eta baita prozesu eta borrokekiko lotura emozionaletan sakontzen ere. Bide horretan, sentitzeak, emozioek, musuek, beldurrek, sormenak, jarduera artistikoez zein ludikoez zentzu politikoa dutela ikusi eta barneratzea lortu genuen, hein batean.

Ikastaroak momentu eta zeregin ezberdinak izan zituenez (gaubelak, jatorduak, lan-saioak, harrerak eta agurrak, gertatutakoa erregistratzea, garbiketak...) horietako bakoitzak ematen zigun aukera ikasteko; aurretik esan dugun moduan, gertatzen zen eta bizi genuen guztia zen momentu pedagogikoa. Horrela, espazio, hizkuntza eta zeregin ezberdinetatik ezagutza sortzeko aukera izan genuen, formakuntza politikoa integratuta sustatuz.

Norabide bakarreko formakuntza-ereduak (goitik beherakoak, edukien transmisiora mugatzen direnak, eduki gutxi batzuk goraiatzeko dituztenak) iraultzeko ere urratsak eman genituen, formakuntza politikoa berrezaugarritzeko eta jakintza kolektiboki sortzeko bidea eginez.

3. HELBURUA. Bidea herri-eragileen parte-hartzearekin eta zapalkuntza guztiak kontuan hartuz egitea. Horretarako, herri-sektoreek pairatzen duten zapalkuntza oro eta garatzen dituzten borroka eta erresistentzia estrategia guztiak aitortuz.

Hainbat herri-eragilerekin batera egindako lehenengo diagnostikoan atera zen zapalkuntzen dinamikak eta bere eguneroko mekanismoak ez zirela herri-mugimenduetako formakuntzetan behar adina lantzen. Horri helduz, gaitegiaren atal oso bat zapalkuntzen eta alternatiba askatzaileen ingurukoa izan zen.

Gaitegiaren atalean azaldu dugun bezala, gai oro hainbat begiradatatik lantzen saiatu ginen, ulertzen baikenuen herri-mugimenduetan dauden arazo, kezka eta beharrak plazaratzeko eta gogoeta berriak garatzeko modurik egokien hori zela. Hala ere, oraindik fintzeko dugu alor hori. Garbi geratu zaiguna da bitarteko gehiago jarri behar ditugula ikastaroan egon ez ziren kokapenei, begiradei eta esperientziei lekua egiteko eta ikuspegi feministan, antikapitalistan nahiz dekolonialean sakontzeko.

Formakuntza-prozesuan herri-eragile anitzek parte-hartzea eta zapalkuntza ezberdinak kontuan hartuz egitea nahi genuen. Batetik, hainbat kolektibo, esperientzia eta borrokatako kideak harremanetan jartzeak eztabaida politikoa aberasten duelako, eta, bestetik, aniztasun horren ondorioz sor zitezkeen desorekak orekatzea ikastaroan zehar aurre egin beharreko erronka politikoa zelako.

Horretarako, ordea, herri-eragile anitz horien presentzia beharrezkoa zen ikastaroan, eta, lantaldeen atalean aipatu dugun bezala, aniztasuna mugatua izan zen. Izan ere, ikastaroa Joxemi Zumalabe Fundaziotik sortu zen eta nahiz eta fundazioko kideen posizio politikoak anitzak izan, eragile bezala erreferenzialagoak gara herri-mugimenduetako sektore batzuetan beste batzuetan baino. Horregatik, formula berriak bilatzen eta bitartekoak birpentsatzen jarraitu behar dugu, ahalik eta herri-eragilerik gehienengana iristeko.

Dena den, homogeneousun horren barruan bazegoen heterogeneousunik, eta, hor, bizi izan genituen desoreka batzuk. Partaideen gehiengoa sektore politiko edo herri-mugimendu zehatz bateko kide zenean, ikastaroan nabaritu egin zen; momentu batzuetan landu ziren edukiak eta estrategia politikoak sektore horrek zuen ikuspegi politikoarekin oso lotutakoak izan zirelako. Horrek ekarri zuen zenbait unetan eztabaida politikoa parametro konkretu batzuetara mugatzea, eta beste kide batzuen bestelako errealitate eta posizioei itzal egitea.

Bide horretan ikasitakoa izan da aniztasuna aintzat hartuz lan egin nahi dugunean ezin dela ezer egintzat jo; sor daitezkeen desorekak orekatzeko neurriak jarri behar ditugula eta prozesu hori guztia ikasketa politiko gisa bizitzeko aukera ematen digula egiteko modu horrek.

4. HELBURUA. *Pentsatu, izan eta ekitearen berriztapenean sakontzea Militantzia-kultura askatzaileagoak sortzeko bidean urratsak eta hausnarketak egitea.* Horretarako, formakuntza prozesu osoan zehar-lerro izanik ahalduntze pertsonal zein kolektiboa sustatzen duten metodologiak.

Abiapuntuko diagnostikoaren beste ondorioetako bat taldeek barrurantz begiratzeko beharra zutela izan zen, kanporako egiten den horretan jarri ohi dugulako kolektibo askok indarrrik gehien. Horregatik zen gaitegiaren beste atal oso bat antolaketaren eta funtzionamenduaren ingurukoa.

Norbanakoaren, taldearen eta proiektuaren zaintzaren arteko oreka irudikatzen duen hirukia zentroan egon zen formakuntza osoan zehar; talde baten bizitzan, eta, beraz, talde horrek izango duen eraginkortasun politikoan, taldeko kideen arteko harremanek uste duguna baino eragin handiagoa dutelako. Izan ere, taldekideen arteko harremanak, eta, oro har, talde-funtzionamendua bera, eremu pribatuko afera baino afera politikoa dela aldarrikatzen dugu. Eta, afera politikoa den heinean, kolektiboki landu beharreko gaia dela ulertzen dugu. Horrela, elkarreraginean dauden hiru

eremu horiei arreta jartzea eta zaintzea garrantzitsua da militantzia-kultura askatzaileago baterako bidean.

3. irudia. Norbanakoaren-taldearen-proiektuaren zaintza



Iturria: Mugarik gabe, *Ikusezinean bidaiatzen gida*

Egiteko moduetan arreta berezia jarri genuen, saiatuz proposatzen genuen horrekin koherentzian eta planteatzen genituen irizpideekin bat eginez aurrera ateratzen ikastaroa. Metodologia azaltzean aipatu dugu, ikastaroa egin genuen *modutik* eta *bizitakotik* bertatik hasi zen eraldaketa; militantzian ohituta geunden egiteko moldeetatik ezberdin egiten saiatu ginen, gauzak egiteko beste modu batzuk praktikatzeko espazioa izan zen.

Orokorrean, bai partaideek eta bai BPPko kideok baloratu genuen bertan bizitako giroan eta lan-dinamikan hobetzekorik egon arren, praktika askatzaileagoa izan zela ordurarte bizi izandako militantzia-esperientziak baino, eta bizitako eta ikasitako hura guztia gurekin daramagula. Esaterako, taldean jarduten ikasi genuen, hori praktikatu; maila teorikoan landutako desorekak eta gatazkak ikastaroan bertan gertatu zirenean, landu egin genituen, haietatik politiko-pedagogikoki ikasiz, eta, hainbat zereginen ardura hartu, eta aurrera eraman genuen taldean.

Zeregin desberdinak erosoagoak ala arrotzagoak egin zitzaizkion partaide bakoitzari, gehiago edo gutxiago kostatu zitzaion bakoitzari. Hor emozio ezberdinak mugitu ziren pertsona eta talde bakoitzarengan; eta, talde-giroa zaintzeak, giro atsegin eta gertukoa izateak maila emozionalean bizitzen ari ginena konpartitzea erraztu zuen, horri ere balio politikoa emanez. Giro horrek erraztu egiten zuen zeregin batzuk beldurrez, urduri zein deseroso sentituz egingo genituela onartzea, eta, taldearen babespean, egitea. Horiak guztiak esperimentatzeko aukera izatea ahalduntzailea izan zela baloratu zen.

Hala ere, batez ere gogoeta zeregina aurrera eraman behar izan zutenean taldeek sentitu zituzten kanpo- eta barne-presio edo exigentziak batzuetan blokeatzaileak izan ziren. Gehienetan buelta eman eta egoera erronka gisa bizitzea lortu bagenuen ere, kide bat baino gehiagorengan eragin zuen horrek frustrazioa, inpotentzia edo aseta ez geratzearen sentsazioa.


Bigarren eta hirugarren edizioetan, arestian aipatu gisa, hainbat partaidek erdibidean utzi zuten ikastaroa, eta, kasu horietan, bizipen-ahalduntzailea izan ordez, zalantzan geratu ginen ea ez ote zuen kontrako efektua sortu. Zentzu horretan, argitu gabeko zalantza da gure formatua dedikazio aldetik gaur egungo herri-mugimenduetako kideentzat exigenteegia ote den.

Ikastaroan ere, herri-mugimenduetako taldeetan bezala, inplikazio-maila ezberdina izan zuten kideak eta taldeak egon ziren, eta, beraz, bizipenak ere mila izan ziren. Batzuentzat dedikazio gehiegi eskatzen zuen bitartean, beste lantalde batzuek euren sortze-prozesu propioak bizi izan zituzten: gogoe-tarako dinamika berriak asmatuz, harrerarako irratsaioak sortuz, gaubele-tarako ikuskizunak sortuz... Horrek guztiak inplikazioan eta motibazioan eragin zuela ikusi genuen, ongi pasatzea eta aseta sentitzea ere garrantzitsuak direlako; bai dedikazio-maila bati eutsi ahal izateko, bai ikasitakoak barnertzeko, bai irekiago egoteko eta baita militantzia kultura askatzai-leago batera bideak urratzeko ere.



Abiatu ginenetik, atzera begiratu helburuei banan-banan eta ibilian-ibilian noraino iritsi garen ikusita... marraztutako bidean urrats apal bat eman dugula esan genezake eta norabid-erik galdu gabe darraigula. Esperientzia eta formakuntza-prozesu ederra izan da! Eskerrik asko Pil-Pilean posible egin zenuten guztioi!

Pil-piloen
GAINA ERREKETA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA


Biltzaerak
Erraztasun
materiaz

ondoa
en

BIBLIOGRAFIA

- Dañobeitia Ceballos, Olatz; Roco Sanfilippo, Josefina (2016). Bor-Bor(K). Herri jakintzez, igarotzeez eta (trans)formazioez, Hainbat egile: *Formazio politikorako esperientziak herri mugimenduetan*, Euskal Herria: UPV-EHU, HEGOA, 15-67. Sarean: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/289/Formazio_politikorako_esperientziak.pdf?1488539866
- Jara Holliday, Oscar (2011). Orientaciones teórico-prácticas para la sistematización de experiencias. *Centro de Estudios y Publicaciones Alforja*. Sarean: http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0788/6_JAR_ORI.pdf
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2017). *Bor-Bor(K) Herri Jakintzen Laborategia. 2015/16 Ikastaroaren sistematizazioa: talde-lan eta aliantzak herri mugimenduetan*. Joxemi Zumalabe Fundazioa. Sarean: <https://joxemizumalabe.eus/2017/05/27/bor-bor-k-20152016-ikastaroko-sistematizazio-liburuxka/>
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2018). *Beldurrak? Bai, eta zer! Bor-Bor(K) 2016/17*. Joxemi Zumalabe Fundazioa. Sarean: <https://joxemizumalabe.eus/2018/05/28/beldurrak-bai-eta-zer/>
- Joxemi Zumalabe Fundazioa; Bizilur (2018). *Korapiloak askatze bidean. Euskal Herriko herri mugimenduetan dugun formazio-ezagutza askatzailearen mapeo bat*. Sarean: <https://joxemizumalabe.eus/2018/05/28/korapiloak-askatze-bidean-txostena-eskuragarri/>
- Martinez, Zesar; Casado, Bea (2006). Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipatorios. *Hegoa Institutuko Lan-Koadernoak*, 60. zenbakia, Bilbo. Sarean: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/242/lankoadernoak_n°60.pdf?1488539798
- Mugarik Gabe (2019). *Ikusezinean bidaiatzen. Eraldaketa feministarako antolakundeko aldaketa*. Sarean: <https://www.mugarikgabe.org/viajandoporloinvisible/wp-content/uploads/2019/07/Guia-Viaje-EUS.pdf>

Pil-piloen
GAINA (K) HERRA



BOR
BOR
(K)

HERRI JAKINTZEN LABORATEGIA

Biltzaerako
Erraztasun
materialak

ondoa
en